

Berrigara

Tatou

Tatuajea eta pearcinga

MARKIEGI
autoak

Leizeaga, 1 (San Lorenzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa) Telefonoa: 76 35 09

BIGARREN ESKUKO
AUTOAK





VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 79 78 10 Arrasate
Errioxa 17 Tf. 945-25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).


NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.


30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

902 202 502



ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korrente alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
**konponketa eta
bobinaketa**



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA Telefonoa: 943- 76 64 14 Faxa: 943- 76 62 99



Euroa

Iñigo Urrutia / Kazetaria

Europear komisioak adierazi duenez aste honetan, hamaika Estatu izango dira euroaren esparruan onartuak. Europar eraikuntza oinarrizko zutabea den batasun monetarioak mota guztietako aldarrikapen publikoak sortarazi ditu, gehienak erabakia onuragarritzat jotzen dutenak. Dena den, ia izkutuan gelditu diren beste irizkiak, kontrakoak alegia, argudio sendoak zein eztabaidagarriak erabili dituzte. Adibidez subiranotasunaren mozketaren nabarmena suposatuko duela euroa indarrean jartzea, hala nola Alemaniaren mesederako. Beste batzuek arrazoitzen dute aspaldian desagertu zela banketxe estatalaren subiranotasuna eta gogoratzen digute Bundesbank-ek interes tipoa aldatu zituenekoa.

Banku Zentrala kontrolpean izateak tirabira ugari erakutsi du, nahiz eta gestioa nortasun politikorik gabe antolatu, diotenez. Hori zeharo eztabaidagarria deritzot, hain zuzen ere diruen kontuak erabaki politikoen baldintzapean egon behar dutelako. Bestela, zertarako behar dugu aurrekontuen inguruan egi-

ten den eztabaida politikoa? Bankuaren arduradunek esandakoa onartu eta kitto. Horrela pentsatzen dute liberalek, baina ondorioak agerian ditugu. Euroa aurrera ateratzeko adierazgailu makroekonomikoak izan dira kontutan, lanpostuak salbu. Espainiak beste Estatuaren langabezia bikoiztu egiten du, baina datu hau ez du izan eraginik.

Euroak abantailak dauzka, nola ez, txanponaren egonkortasuna eta inflazioa zerura ez badoaz: tipoen prezio merkea. Bezeroen ikuspuntutik merkaturaren konpetentzia askoz indartsuagoa espero daiteke. Baina euroa neurtzeko ezin ditzakegu ahaztu azken urteotan

egin ditugun mozketak inbertsio publikoetan. Adierazgailuekin bat etortzeko enpleguaren politikak eta azpiegituren eraikuntzak alde batera utzi dituzte Europako gobernuek, difizita jeitsi behar zenaren aitzakiarekin.

Arduradun politikoez bularra ateratzen dute, arrazoiak dauzkate, baina era berean lotsatzeko ere bai. Egun, hiritar gehiegi lanpostu gabe darraite eta arazo honi irtenbide bat emateko, euroa lortzeko jarri ziren antzerako indar eta ahaleginak bideratu behar dituzte. Kontua ez da txantxetako. Langabetu bati ezer gutxi inporta zaio euroan sartzen garen ala ez. Baina ez dirudi gobernuak prest daudenik senperrenak egiteko. Euroaren helmugara iritsi bagina bezala dihardute, baina lehia hasi besterik ez da egin. Eta askok nekea erakusten dute. Gauza bat argi dago, euroa kaleratzen denean gauzak okertzen badira, adibidez inflazioaren gorakada bat dela eta, ohizko debaluazioaren tresnak ezingo dira erabili. Eta krisia sortzen bada, soldatak eta lanpostuak arrisku bizian lirarteke. B

"Hiritar gehiegik lanpostu gabe darraite eta arazo honi irtenbide bat emateko, euroa lortzeko jarri ziren antzerako indar eta ahaleginak bideratu behar dituzte politikoez"

■ barruan



Angelo Cacciola

Teknologia berrietan aditua

"Teknologia berriak menderatzea ezinbestekoa da, beraiek gu menderatu aurretik"

8. orrialdean.



Ander Agirre

Txirrindularia

"Momentuko indarraren arabera erabakitzen dut tropeletik ihes egin edo ez"

22. orrialdean.



Mila Elortza

Angiozarko liburutegikoa

"Irakurtzeko momenturik onena gaua da. Nik sukaldean irakurtzeko ohitura daukat"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1955. Martxoaren 25ean, Juan Jose Lete euskal idazlea hil zen Deban. Osintxun jaio zen, nahiz eta umetatik Soraluzen bizi izan zen. Bertan enpresari lanetan jardun zuen eta zenbait ipuin eta antzerki lan idatzi zituen. Ezagunenak, "Gurutzepe" eta "Itxastarra".

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1900. Martxoaren 27an, Euskalduna itsasuntzi ola sortu zen Bilbon.

1932. Martxoaren 27an, lehenengo Aberri Eguna antolatu zen Bilbon.

1960. Martxoaren 22an, J. A. Agirre Lehendakaria hil zen.

1972. Martxoaren 23an, Kristobal Balentziaga jostun getariarra hil zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzatza 20

3-14-24-27-29-44 (osag.49/er.4)

Astelehena 23

10-31-33-38-44-45 (osag.46/er.7)

Martitzena 24

10-17-19-21-33-34 (osag.25/er.9)

Eguaztena 25

3-8-9-27-29-41 (osag.43/er.8)

PRIMITIVA

Zapatua 21

11-16-20-35-40-47 (osag.2/er.0)

Domeka 22 *Gordoa*

8-13-22-23-39-47 (osag.26/er.4)

ONCE

Eguakitzatza 20: 39.014 (K. seriea: 012)

Astelehena 23: 07.728

Martitzena 24: 39.217

Eguaztena 25: 22.892

BESTE BATZUK


Bedelkarreko harakinak: 7.728

Etxaniz plataforma-Mariskada:

1.370. Irabazlea: Ana Mari Sasiain

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguraldiak okerrera egingo du asteburuan, hodeiak ugaltzen joango dira eta euri arriskua izango da. Temperaturak zertxobait behera egingo du. Haize fina ibiliko da eta mendealdetik joko du. Hodeiak nagusi, beraz, asteburuan.

Ilargiaren aldiak



Ilbehera: martxoak 21



Ilberri: martxoak 28



Ilgora: apirilak 3



Ilbete: apirilak 11

Eguzkia

Domekan



Sortu: 07:05



Gorde: 19:38

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Martitzena 17	17	8	-
Eguaztena 18	17	6	-
Eguena 19	21	8	-
Eguakitzatza 20	17	6	-
Zapatua 21	16	1	-
Domeka 22	17	1	0,1
Astelehena 23	15	6	0,2
Martitzena 24	11	5	-
Eguaztena 25	16	-1	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Ankajoku

Antxintxiketa, zerbait ihesi. Carrera apresurada, escapando de lago.

- Keixa lapurretan zebitzen mutikuak, eta ango ankajokua baserritarra azaldu zanian.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Glaziarrak urtzen ari dira

Greenpeace elkarte ekologistak adierazi duenez, Alaskako Bering glaziarrari 10 eta 12 kilometro artean murriztu zaio luzeera azken mendean zehar, eta gainera bere azalera osotik 5.000 km², 130 galdu ditu. Greenpeacen ustez Lurraren berotze globalaren sintoma da hori, eta planetako zenbait lekuren urpezea ere ekar dezake.

Farmaziak

Eguakitzatza 27: MOZOS.

S. Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

22:00etatik aurrera: MORALES.

Araba etorb., Arrasate. Tf. 79 18 66

Zapatua 28: CAMACHO.

Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.

22:00etatik aurrera: AZKOAGA.

Ferrerias 1, Arrasate. Tf. 79 15 15.

Domeka 29: CAMACHO.

Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.

22:00etatik aurrera: ESPAÑOL.

Iturrioz 17, Arrasate. Tf. 79 14 88.

Astelehena 30: PUY.

Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 76 16 88.

22:00etatik aurrera: CORCUERA.

Elkano 2, Arrasate. Tf. 79 22 26.

Martitzena 31: GUALLAR.

S. Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 06.

22:00etatik aurrera: IRIZAR.

Erquin 11, Arrasate. Tf. 79 12 39.

Eguaztena 1: ESTELLA.

Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

Eguena 2: MOZOS.

San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

Ogia

Domeka 29: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	000
DYA	78 71 51
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	76 24 40
Anbulantzia	55 49 63
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 46
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 58
RENFE	28 35 99

UDALA

Udaletxea	77 91 00
Udal Artxiboa	77 91 30
Igerilekuak	76 20 51
Kultur Etxea	77 91 54
Liburutegia	77 91 63
Mizpurualde Egoitza	76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	76 14 50
Erregistroa	76 13 10
Jardun	76 36 61
Jubilatuaren Etxea	76 21 40
Postetxea	76 26 05

zorion agurrak



Raul Ruiz
Martxoaren 27an
18 urte. Zorionak
famiiaikoen partez!



Erik Gauna Elorriaga
Martxoaren 26an
16 urte. Zorionak
etxekoan partez!



Bego Eguren
Martxoaren 13an
39 urte. Berandua
baina zorionak!
Polideportibokoak.



Iñaki Goenaga
Martxoaren 27an
11 urte. Zorionak
etxekoan partez!



Benita Gallastegi
Martxoaren 20an
bete zituen urteak.
Zorionak
famiiaikoen partez!



Julen Irizar
Martxoaren 26an
3 urte. Zorionak
famiia eta aitona-
amonon partez!



Leire Otero
Martxoaren 18an
10 urte. Zorionak
gurasoen eta
Nagoren partez!



Garazi Garcia
Martxoaren 23an
11 urte. Zorionak
Anartzen partez!




Olatz Esnaola
Martxoaren 28an
11 urte. Zorionak
gurasoen eta
ahizparen partez!



Marijose Urmaneta
16an bete zituen
urteak. Zorionak!
Agirrebeñakoak.

Paco Herrerros Camacho

Bergaran hil zen 1998ko
martxoaren 13an, 58 urte zituela.




*Familiaren partez mila esker
azken agurra ematera etorri
zineten denoi.*

Josefa Eguren Makazaga

Luzio Elkoroiriberen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan,
martxoak 29, goizeko 10:30etan, Uberako
Pablo Deunaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde
aurretik eskerrik asko.*

Jose Mari Azkarate Retolaza

Bergaran hil zen 1998ko
martxoaren 13an, 63 urte zituela.



*Hileta elizkizunetara etorri
zinetenoi eskerrik asko
emaztearen, sema-alaben eta
famiiaikoen partez.*

hildakoak

Floriana de Castro Mata
Martxoak 18, 94 urte.

Mikaela Mardaras Madariaga
Martxoak 20, 86 urte.

Melchora Muruamendiaraz Oruesagasti
Martxoak 20, 88 urte.

Martin Mujika Barrenetxea-Arando
Martxoak 24, 75 urte.

jaioetakoak

Unai Balanzategi Curado
Martxoak 13.

Unai Belategi Garcia
Martxoak 14.

Jon Etxeberria Arreseigor
Martxoak 19.

Irene Garcia Leturiaga
Martxoak 21.

Mikel Elkorobezibar Beloki
Martxoak 23.



Julen Corbillon
Martxoaren 19an
2 urte. Zorionak
gurasoen eta
famiiaikoen partez!

Josu Olabarria
Martxoaren 18an
8 urte. Zorionak
denon partez!



Joseba Balzategi
Martxoaren 19an
32 urte. Zorionak
koadrilakoan partez!

Manex Asula
Martxoaren 21ean
3 urte. Zorionak
famiiaikoen partez!



Olatz Esnaola
Martxoaren 28an
11 urte. Zorionak
gurasoen eta
ahizparen partez!



Marijose Urmaneta
16an bete zituen
urteak. Zorionak!
Agirrebeñakoak.



Usue Goñi Zubizarreta
Martxoaren 23an
7 urte. Zorionak
famiiaikoen partez!



Lidia Peña
Martxoaren 30ean
12 urte. Zorionak
gurasoen eta anaia
Rubenen partez!



Kristina Atxa
Zorionak!
Berriz etxean!
Lagunak.



Jose Angel
Martxoaren 27an
urtebetetzea.
Zorionak! Alatz,
Ander eta famiia.



Mercedes Miguez
Martxoaren 21ean
bete zituen urteak.
Zorionakfamiia eta
lagunen partez!



Sandra Sanchez
Martxoaren 21ean
12 urte. Zorionak!
Jone, koadrila eta
etxekoak.



Janire Iparragirre
Martxoaren 19an
16 urte. Zorionak
koadrilakoan partez!



Jesus Alvarez
Martxoaren 24an
21 urte. Zorionak
lagunen partez!



Unai Uribesalgo
Martxoaren 28an
18 urte. Zorionak
famiiaikoen partez!



Leire Lizarralde
Martxoaren 25ean
23 urte. Zorionak
lagunen partez!



Mikel Larrion
Martxoaren 24an
24 urte. Zorionak
amama Joxepa eta
famiiaikoen partez!



Idoia Narbaez
Martxoaren 26an
9 urte. Zorionak
gurasoen eta
anaieren partez!



Ander Amasorrain
Martxoaren 27an
11 urte. Zorionak
Jone, Nerea eta
famiiaikoen partez!



Xabi Aranda Oteo
Apirilaren 1ean
13 urte. Zorionak
osaba Juan Kruzen
partez!

ANTZERKIA

► Eibarko Antzerki Jardunaldiak: "En Saintrotwist" (Aringa y Verdurini) bihar, zapatua; "La dama boba" (Basauriko Antzerki Eskola) domekan, "Pervertimento" (Teatro de la huella) astelehenean eta "Udaberriko lore guztiak" (Bederen 1) eguaztenean. Emanaldi denak Hezkuntza Esparruan 20:30etan.

ERAKUSKETAK

- Eskualdeko arte erakusketa Kultur Etxean.
- Gure Ametsa elkartearen San Antonioko argazkien erakusketa gaurtik aurrera.
- Carlos Goitia margolaria-
ren erakusketa Nahikari tabernan martitzenera arte.

MUSIKA

► Desvan del macho eta Daisy Cutters taldeak gaur, eguakitzan, 22:30etan Oñatiko Gaztelekuan.

LEHIAKETAK

► Txorimalo lehiaketa Erramu Zapatuan, apirilaren 4an. Adinaren arabera, hiru talde izango dira. Izen ematea eguaztena baino lehen Kartzela Zaharrean. 76 36 61.

KIROLA

Mendi astea

Martxoaren 30etik apirilaren 5era

Astelehenean 19:00etan Pol-Pol Mendizale Taldeak, Kirol Zerbitzuak eta Jardun Elkartek antolatutako Mendi Asteari hasiera emango zaio Pol-Poleko lokalatan. 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako kirol marrazkien lehiaketako lanik onenak ikusgai izango dira bertan eta baita Jose Ramon Agirre "Marron"ek K2 mendian ateratako argazkiak ere.

Martitzenean, 19:30etan, Jon Gurutzia-gak Peruko Andean eginiko bidaiaren jasotzen duen diapositiba emanaldia izango da UNEDen eta eguaztenean, apirilak 1, "Marron"ek, ordu eta toki berean, "K2 Baltistan" izenburuko ikusentzutekoa erakutsiko du. Pakistango Himalaian dagoen K2 mendira (8.611 m.) egin zuten espedizioa bizipenak azaltzen dira bertan. Harkaitz Cano idazleak zuzendutako gidoian, Pakistan herrialde musulmanean

ematen diren balore eta kultura ezberdenganako hurbilpena egiten saiatu dira. Proiekzioa formato panoramikoan emango da eta ikusentzutekoak 35 minutuko iraupena izango du. Hurrengo egunean, apirilaren 2an hain zuzen, Batis Goikoe-txea eta Miguel Angel Otxoaren "Hiru handi mendiko eskian" emango da UNE-Deko aretoan 19:30etan. Hogeitahamar minututan, Posets, Aneto eta Monte Perdido tontorren arteko eski-trabesia jasotzen da. Bestalde, emanaldiaren aurretik kirol marrazki lehiaketako eta Berrigararen deitutako lehiaketaren sari banaketa egingo da.

Bukatzeko, Mendi Asteari amaiera emateko, gaztetxoek zuzendutako mendi irteera egingo da Ixua-Kalamua eta San Pedrorra apirilaren 5ean, goizez, 8etan frontoian. B



"Hiru handi mendiko eskian" diapositiba emanaldia eskainiko da eguaztenean.

► Bergarako XIII. Literatur Lehiaketa. Lanak apirilaren 22rako eman beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan. 77 91 66.

► I. Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa. Kartelen gaia zezenez eta Bergara izango

da. Estilo eta teknika libre, markorik gabe, lanak euskarri gogorrean edo bastidorearekin aurkeztuko dira, 55x46 cm. eta 146x114 cm. bitarteko neurrian. Lanak apirilaren 20tik 30era bitartean entregatu beharko dira Kultur Etxean. Irabazleak

150.000 pezeta eta plaka oroigarria jasoko du.

DEIAK

► Jubilatuei zuzendutako bidaiak Lisboako "Expo" bisitatzerako. Maiatzaren 24an

ZUBIETA elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.**

Kruz Gallastegi 2 beheak
☎ 76 23 48

AZPEITXI

Aranerreketa 13 beheak ☎ 76 55 00

Jatetxea

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu
aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreketa 14 beheak
BERGARA

Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

irailaren 27ra bitartean hainbat txanda izango dira. Izen-ematea eta argibideak Marsans bidaietan, 45 65 93 eta 42 38 38 telefonoetan.

► Jubilatuen mendi irteera apirilaren 1ean. Bergararik Zumarragara autobusez, gero oinez Santa Barbaratik Golarra eta handik Bergarara.

► Gipuzkoako XXIX. Hiru Txirloko Bola Txapelketaren hirugarren jardunaldia zapatuan Floreagan, Azkoitia 17:00etan.

► Alpino Gorlak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak Lizarrusti-Etxegaratera irteera antolatu dute domekarako, hilak 29. Irteera goizeko 7:30etan egingo da Frontoitik.

► Sagarpe elkarteko urrezko eztaiak ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, eguaztenez, "Sukalderako teknikak" Koldo Lasaren eskutik 19:00etan Sagarpen. Eguenean, hilak 2, "Ardoaren dastaketa eta kata" German Arrien enologoarekin.

► Gazte akanpada Pol-Polarekin apirilaren 9tik 13ra Bujaruelon, Huescan. Izen-ematea eguna baino lehen Pol-Poleko bulegoan, 76 48 51 telefonoan.

► Alpeetara eski irteera apirilaren 10etik 17ra. Izen-ematea Pol-Polen, astelehe-

netik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

► Odol ateraldia eguaztenez, 18:30etatik aurrera Seminarioan.

► EAJren ekitaldi politikoa bihar, zapatua, 12:00etan Gasteizeko Principal Antzokian, Lehendakari gaia eta Legebiltzarreko presidente gaia izendatzeko. Bergarako EAJk parte hartzeko deia egiten die bere alderdikideei.

► Aranzabal Lagunarteak eta Peña Bombak Aste Santuan Galiziara irteera antolatu dute, Compostelaren aurkako partidua ikusteko. 22.500 pezeta. Izen-ematea 76 58 88 zenbakian.

KINTADAK

► 1956ko Gipuzkoako kintoen bazkaria apirilaren 5ean Zarautzen. Interesa duten bergarrek 76 11 73 telefonoan izen-ematea.

► 1964an jaiotako bazkaria apirilaren 25ean. Argibideak Plazako kioskoan (Luke).

► 1953an jaiotako bazkaria uztailearen 4an Antxonin. Izen-ematea Antxonin bertan.

► 1949an jaiotako bazkaria (dantza eta guzti) apirilaren 4an Tartufon. Izen-ematea: 76 35 51.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

The Boxer

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

The Borrowers

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 11:30.

El gabinete del Dr. Caligari

Eguena, F. Cinematographe: 21:30.

ARRASATE. Alai zinema

Anastasia

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 19:00.
Martitzena: 19:00.

Titanic

Eguakitzatik martitzena bitartean: 22:00.

EIBAR. Unzaga

Anastasia

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:30.

Titanic

Eguakitzatik martitzena: 22:00.
(Martitzena ikuslearen eguna).

EIBAR. Rialto

Esfera

Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

Pactar con el diablo

Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Wallace & Gromit

Western

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ANTZUOLA. Gazinema

Sleepers

Eguakitza: 22:00.

Asterix en America

Domeka: 16:30.

THE BOXER

Zuzendaria: Jim Sheridan.

Aktoreak: Daniel Day-Lewis, Emily Watson, Brian Cox.

Belfasten bi gazteren arteko amodioak ere liskar politikoa pizten du. *Maggie* IRAko lider baten alaba dugu; gaztetan, 19 urterekin gartzelaratu izan zen *Danny*ekin maitemindu zen. Orain senarra dena ere espetxean dago. Kartzelatik irteerakoan boxeolari helduko dio berriz *Danny*k.

LOS BORROWERS

Zuzendaria: Peter Hewitt.

Aktoreak: John Goodman, Jim Broadbent, Celia Imrie.

Pocho, *Obdulia*, *Pizquita* eta *Anita* seme-alaba Borrowertarrak ditugu. 6,5 cm.ko altura baino ez daukate eta *Lender* familiaren etxean bizi dira. *Pete* mutikoaren amona hil ondoren, abokatu maltzur batek *Lender*arren etxea bota nahi du.

EL GABINETE DEL DR. CALIGARI

Zuzendaria: Robert Wiene.

Aktoreak: Werner Kraus, Conrad Veidt.

Espresionismo alemaniarren lanik ezagunenetakoa programatu dute Forumeko eguenerako. 1919an errodututa, feriaz feria *Cesare* izeneko sonanbulua erakusten duen *Caligari* medikuaren istorioa azaltzen zaigu. *Caligarik*, gauez, jendea hiltzera bulzatuko du *Cesare*...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

MODA DESFILEA JAM ARETOAN

Miguel Altunako ikasbidaiarako dirua batzeko

Domekan, martxoak 29, 18:00etan.

Sarrerak, Etxagin eta Ariznoan 500 PTAn.

Antolatzailea: Miguel Altuna Institutua.



Modarekin eta Babeslea: gazteekin!

Oñatin bizi den Angelo Cacciola italiarrak zuzentzen duen Telekomunikazioen Fundazioak herriko jubilatuekin kolaboratzeari ekin dio. Jubilatuen partaidetzarekin, Internet sarean integratzeko materiala lantzen ari dira. Ekonomialari honek Antzuolari buruzko web orrialdeak ere landu ditu "Herri birtuala" izeneko proiektuaren barruan.

G. Zein lan egiten ari zarete San Joxepe elkartearen?

E. Antzuolan bezala, lan kultural batekin hasi gara. Gure kolaboratzaileetako batek bederatzi lagun elkarriketatu ditu eta jasotako materialarekin Bergaran nekazaritzatik industriara emandako pausua edota ia ahaztuta dauden leiendak berreskuratu nahi ditugu. Jubilatuekin kontatzen dugutenarekin eta beste hainbat dokumentazioarekin (Barandiaranena batez ere) ipuin bat lantzen joango naiz eta ipuin hori argazkiak, soinua eta animazioak gehituko dizkiogu Interneten sartu aurretik. Aste Santurako prest izango da.

G. Lan hauek zein helburu daukate?

E. Jendeari modu sinple eta errez batean hurbildu nahi dizkiogu teknologia berriak. Telekomunikazioekin iraultza industrial berri bat bizi dugu eta teknologia berriak menderatzea ezinbestekoa da; bestela, berriak menderatuko gaituzte. Gogoratu beharrik ez dago orain 5 urte EEBBetan gertatu zena; teknologia berrien ezarpenak 30 milioi langabetu inguru ekarri zituen, jende hori ezin izan zelako teknologia sistema berrietara egokitu. Horretan datza "Herri birtuala"ren proiektua, jendearen beharrak

ANGELO CACCIOLA

Teknologia berrietan aditua

"Modu errez eta sinple batean teknologia berriak hurbildu nahi dizkiogu jendeari"



Cacciolak teknologia berriak egoki erabiltzeko garrantzia azpimarratzen du.

zeintzuk diren aztertu eta hortik lanean hasi.

G. Antzuolan proiektu hori martxan dago.

E. Lehenbizi, 25 web orrialdeko ipuin bat landu genuen han ere eta gero beste hainbat informazio gehitu genion. Dagoeneko Antzuolari buruzko 80 bat orrialde izango dira Interneten ([***"Bergarako jubilatuekin lan kultural batekin hasi gara, nekazaritzatik industriara emandako pausua edota leiendak berreskuratzeko"***](http://www.elkar-</p>
</div>
<div data-bbox=)

kom.com/euskadi/antzuola). Hemendik aurrera herriko hainbat kolektiboren orrialdeak promozionatzeko asmoa daukagu. Bestalde, Telekomunikazioetako Egoitza Publikoa ere martxan jarri da Udaletxean.

G. Zer eskaintzen du bertan?

E. Alde batetik, ikastaro ezberdinak ematen ditugu (Windows 95, Interneterako sarrera...); bestetik, zerbitzu publiko bat ere bada herriarrentzat (jendeak kotxeen prezioak jaso ditzake ordenagailuan, Argentinan bizi diren senideekin bideo-konferentziak egin daitezke..., etab.). Eta, azkenik, bidaia birtualak edo tematikoak antolatzeak aukera daukagu. Datozen asteetan Chiapas edota munduan bizi diren euskaldunei buruzko gaiak aztertuko ditugu adibidez. Chiapaseko kasuan Interneteko amerikar zerbitzari batek bi orduko informazioa bidaltzen digu eta baditugu Nazio Batuen Amnistia Internazionala eta beste hainbat erakunderen azken albisteak jasotzeko aukera. Herriarrak zentru jestionatzerara iristen direnean, fundazioaren zeregina amaitu egingo da, aholkulari hutsak izatera pasatuko gara eta, beraz, lanpostu batzuk sortuko dira.

G. Zuk zeuk asko erabiltzen duzu Internet? Zeintzuk dira alde onak eta txarrak?

E. Egia esan, maila profesionalean erabiltzen dut bakarrik, batez ere software eta ekimen berriak ikertzeko. Aspektu onei dagokionez, edozeinek informazio sor dezakeela azpimarratuko nuke. Txarrak? ba, telebistaren kasuan modu txarto erabiliz gero, kaltegarria izan daitekeela. Honek gain, gehiegizko material pornografikoa dago. B

Antzuola eta Bergaran atxilotutako zazpi lagunetatik lau askatu dituzte

Besteak inkomunikatuta izan dira eguaztenera arte

"Araba Komandoarekin" lotura dutelakoan Bergara eta Antzuolan Guardia Zibilak San Jose zubian atxilotu zituen zazpi kideetatik lau aske daude.

Beste hirurak, Mikel Berasategi, Mari Karmen Irizar eta Pilar Agirre eguaztenera arte inkomunikatuta egon dira, lehenengo Guardia Zibilaren kuartelean, Madrilen, eta, ondoren, espetxean. Unai Zubizarreta zapatuan askatu zuten epailearen aurrera deklaratzera eramanez barik eta inolako kargurik gabe; Kristina Atxa eta Jose Ramon eta Arantza Altzerreka aita-alabak martitzenean laga zituzten aske

Gomez de Liaño epaileak deklarazioa hartu ostean. Jose Ramon eta Arantza 100.000 pezetako fidantza-pean eta Kristina inolako kargu barik.

Atxilotuta izan dituzten bitartean inkomunikatuta eduki dituzte guztiak eta ez abokatuek ezta familiartekoez ere ezin izan dute eurrekin harremanetan jarri.

Pili Agirre zapatuan atxilotu zuten, ezezagun batzuk bere atzetik zebiltzala-eta Ertzaintzaren komisaldegian denuntzia jarri ostean. Beste seiak eguenean atxilotu zituzten Bergara eta Antzuolan. Amnistiaren Aldeko Gestorek Pilar Agirrek interogatorioetan tratatu txarrak jasan dituela salatzen dute.

Guardia Zibilak hartuta

Eguen, eguakitz eta zapatuan guardia zibil mordoa ibili zen Bergaran eta Antzuolan. Zapatuan Paulo Elkorooren eta Joseba Askasibarren etxeak miatu zituzten baina ez zituzten ez bata ez bestea aurkitu. Polizia iturrien arabera "Araba Komandoa" rekin lotura izan dezakete biek. Eguen goizean eta zapatu gauean hainbat kaletarri identifikatzeko eskatzen aritu ziren guardia zibilak eta kalean kontrolak jarri zituzten.

Manifestazioak

Astebukaera osoan zehar hainbat manifestazio

izan dira Bergaran eta Antzuolan detentzioen kontra protesta egiteko; manifestazio jendetsuak izan dira. Bergarako Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Berrigara bidalitako idatzi batean, "sarekada polizial honen ondorioz atxilotutako bizilagunei eta beraiei senitartekoei, eta baita erregistro polizialen ondorioz egoera bortitz hau jasan behar izan duten senitarte eta auzokideei, besarkadarik beroena luzatu eta erabateko elkartasuna adierazi" nahi izan die. Bestalde, Udaltzako eguen arratsaldean biltzekoa zen, Guardia Zibilak egindako atxiloketei buruz HBk aurkeztutako mozioa aztertzeko. B

Bideberrin asfaltua bota eta San Pedron adokina konponduko dute

Astelehenetik lanean dabilta Bideberrin, argiteria jartzeko. Hondatuta zegoen zorua jaso eta argi instalazioa egin ondoren, asfaltu berria botako dute. Oraingoz itxoin beharko den arren, Bideberrin farolak jartzeko asmoa du Udalak. Bestalde, San Martin ikastetxearen atzealdean azken hilabeteetan txukuntze lanetan jardun ondoren, asfaltua botatzen ibili dira egun hauetan. Era berean, konponketak egingo dituz-

te, Zabalotegin, Usondon eta Iparragirre kalean.

San Pedro kalean, Udaltzako atzealdean, bestalde, adokina konpontzen hasiko dira astelehenean. Azken hilabeteetan arazoak izan dira adokina ondo jartzeke zegoelako eta harriak mugitu egiten zirelako. Obrak dirauten bitartean, kalea trafikoari itxita izango da bi hilabete inguru. Seminarioko patioaren atzealdean ere, etxeak egiteko lanak hasi dituzte aste honetan. B



Bideberrin argiteria jartzeko lanean ibili dira aste honetan.



luz egindakoaren txostena eta aurtengo urterako programazioa, helburuak eta aurrekontua onartu zituzten jubilatuek.

1998rako jardueren egitarau zabala onartu zuten jubilatuek

Parte hartze handia urteko Batzar Orokorrean

San Joxepe jubilatuen elkarteak urteko Batzar Orokorra egin zuen eguastenean Jubilatuen etxean. Areto nagusia toperaino beteta zegoela, Zuzendaritza batzordeko kideek 1997an zehar antolatutako jardueri eta diru kontuei buruzko azalpenak eman zituzten. Bestalde, 1998rako 3,5 milioi pezetako aurrekontua eta urte honetarako aurreikusita dauden jardueren egitaraua onartu ziren. Ba-

tzarrean Foru Aldundiko eta Udaleko ordezkariak ere izan ziren eta San Joxepe elkarteak jubilatuen taldeen eredu moduan jarri zuten.

Bestalde, barne funtzionamendurako eta kanpo harremanetarako helburu nagusiak zehaztu zituzten batzarrean. Barne funtzionamenduari dagokionez, honako hauek dira helburu nagusiak: 2000. urterako 2.000 bazkide lortzea (gaur egun 1.448 dira eta horieta-

tik 402 bazkide, 65 urtetik beherakoak dira), bazkideekiko komunikazioa hobetzea, kuoten ordainketa era erraztea (gaur egun 1.000 pezeta ordaintzen du bazkide bakoitzak) eta administrazioa hobetzea. Kanpo harremanei dagokienez, Udaleko Ongizate zerbitzuarekin harremanetan jarri eta batzordean parte hartu, San Martingo danborradan parte hartu eta mendi taldea sortzea onartu ziren. B

Usondo parkea zaintzeko eskatuz, bandoa kaleratu du alkateak

Victoriano Gallastegi alkateak bandoa kaleratu du herritarrei Usondo parkea ondo zaintzeko eskatuz. Bandoak dioenez, Udala hainbat konponketak egin ditu Usondon, baina handik gutxira apurketak egin dira. Esate baterako, azkenengo urtean parkeko komunak bikoiztuak konpondu dituzte, baina dio bandoak. Alkateak herritar guztionak diruzko gauzak hobeto zaintzeko eta ahalik eta garbier mantentzeko, eta horien haurrei ere erakusteko eskatzen du, herritarrei laguntzarik gabe alferrikakoa delako, bestelako Udalak dirua gastatzea.

Azkenaldian Usondo parkeari buruzko hainbat kexa jaso dira Udaltaldean. Parkea oso zikin eta egoera txarrean dagoela eta garbitzeko eta zaintzeko eskatu izan dute herritarrek. Gaitzaz aztertu du Gobernu Batzordeak eta parkeko zaintzen zuena jubilatuenetik parkea egoera txarrean egon dela aitortu dute gobernu taldeko kideek. Arazoa konponatzeko asmoa azaldu du gobernu taldeak. B

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

LONBIDE
ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 76 10 57



ZUBIAURRE
aroztegia

- Aulki eta mahaian erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atatak.
- Neurria egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara. Tf. 76 15 14 / 35

Euskadiko Itzulia Bergara erditik pasatuko da aurten

Apirilaren 7an eguerdiko ordubatean pasatuko da

Apirilaren 6tik 10era bitartean jokatu den Euskadiko Itzuliaren aurtengo edizioko bigarren etapa, Hondarribia-Balmaseda, Bergara erditik pasatuko da. Elosu gainetik behera, Bolutik etorriko da tropela eta San Lorentzotik Matxiategirantz joko du; Ibargarai, Martoko, Zubiaurre eta Ozaeta zeharkatu ondoren, Angiozarko bidea hartuko dute txirrundulariek eta, handik, Asentzio gainera igoko dira.

Lasterketa eguerdiko ordubata aldera pasatuko da Bergaratik, beraz, nahikoa arazo izango dute udaltzai-



Aurtengo Euskadiko Itzulia Bergara herritik pasatuko da. ARTXIBOA

nek trafikoa zuzentzen. Alfonso Alonso udaltzainburuak adierazi digunez, Ziklismo Federazioak 25 bat

lagun jarriko ditu bidegurutzeak zaintzeko. Kalea orduerdia inguru trafikoa moztuta izango da. B

Kirol-medikuntza zerbitzua jartzeko lehiaketa kalean

Deba Garaiko Mankomunitateak, Bergara eta Oñatin kirol-medikuntza zerbitzua jarri eta kudeatzeko lehiaketa plazaratu du. Zerbitzua urtebeterako kontratatuko da, baina bost urtera arte luzatu daiteke. Bergaran Udal biltegian jarriko da zerbitzua eta, asmoa, udarako martxan egotea da. Bestalde, Kirola Euskaraz programarako hainbat lan egiteko pertsona bat kontratatu nahi du mankomunitateak. Eskariak aurkezteko epea apirilaren 14ra arte izango da zabalik. Informazio gehiago, Udal Kirol Zerbitzuan eta Deba Garaiko Mankomunitatean jaso daiteke. B

Elosuko korreoa astean behin eroango dute udaltzainek Elosura

Martxoaren 9an egingako Udal Gobernu Batzordean, Elosuko korreoa Udalak eramatea erabaki zen. Korreoa astean behin eroango da, eguakitzean ahal izanez gero, eta elizpean dauden postontzietan lagako da. Eroan beharreko korreoa Bergarako postetxetik

irteten dena izango da. Orain arte, lehen behintzat, Elosuko apaizak eramaten zituen auzoko kartak, baina aurrerantzean udaltzainak arduratuko dira Elosuko bizilagunei astean behin korreoa eroateaz. Seguruen, datorren astean hasiko dira zeregiri horretan. B

Julen Narbaiza izango da Bedelkarreko presidente berria

Narbaiza pentsu dendako Julen Narbaiza izango da Bergarako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteko presidente berria, joan zen astean egindako Batzar Orokorrean bera aukeratu baitzuten elkarteko kideek. Batzarrean 35 bat lagunek hartu zuten parte eta iaz

egindakoaren eta aurtengo egitasmoen erreposoa egin zuten. Elkarteko gremio bakoitzak bere hautagaia aurkeztu zuen eta batzarrean Julen Narbaiza aukeratu zuten. Datorren asteleheneko bileran, bestalde, Zuzendaritza batzorde berria aukeratu dute. B

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
76 51 65

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 76 27 70 BERGARA

ARREGI
Eraikuntza
materialeak
Biltegia Tellerian, Labegaraletan.
Tf. 76 27 93

Berrigara

317 zenbakia.
1998ko martxoaren 27a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 76 03 97. Faxa: 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Mikel Elkoroberezar, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia:
Amaia Labaien.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Iritzi, protesta edo desioen bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

IRAKASKUNTZA EUSKALDUN BATEN ALDE

Orain arte, garbi ikusi da irakaskuntzako eredu erdaldun eta elebidunak kalte izugarria egiten diotela euskarari, hori horrela izanda ere Euskal Herrian oraindik sendo dira ere eredu hauek, Nafarroan adibidez, G erueda (ikasgai guztiak erdera hutsez) da gaur egun indartsuena eta, bertako haurren aurrematrikulazioak kontutan izanik, %27k besterik ez du D ereduari izena eman.

Zorionez, Bergaran eskola guztietako eskolaurreko haurrak D ereduari dabilta eta hemendik aurrera matrikulatuko diren umeak ere euskaraz egin beharko dituzte beraien ikasgai guztiak. Honez gain, ikastetxe askotan ikasle, irakasle eta gurasoen artean irakaskuntza euskaldunen aldeko taldeak sortu dira, hauen lana aipatzekoa delarik.

Guzti hau oso ondo egin arren, gure lana ez da hemen bukatzen, oraindik B ereduari ikasten duten asko baitago, eta honek ez dio batere laguntzen gure hizkuntzaren normalizazioari. Ikasle hauek ikasgai gehienak euskaraz ikasi arren, euskarari garrantzia haundirik eman gabe erdaraz mintzatzen dira. Gainera, erdal ereduari ikasi eta euskara menperatzen ez duten ikasleek,

gerora, euskara ikasteko gogoia edo eta ikasi eta beharra sentitzen badute, diru ugari gastatu behar izaten dute eta euskararen normalizaziorako oztopo bilakatzen dira. Hau dela eta, bai zuek edota zuen haurrak irakaskuntzako ziklo berri bat hastean D ereduari matrikulatzea gomendatuko genizuke.

Bestalde, Berrigara aldizkari-ko 313. alean Miguel Altuna institutuak DBHko matrikulak ireki dituela eta, azken orrialdean iragarki haundi bat jarri zuen, bertan B erueda ere euskalduntzat hartzen duelarik (D eta B eredu euskaldunak). Guk, berriz, ez dugu B erueda euskalduntzat jotzen, izan ere, garbi ikusten da gaur egun B ereduari ikasten ari direnek euskara baztertu egiten dutela, eta Euskal Herrian euskararen benetako normalizazioa eman nahi bada, irakaskuntza euskaldun bat sortu behar dugu, hots, euskara hutsean egingo den irakaskuntza.

Gauzak honela daudela ikusirik, irakaskuntza euskaldun baten alde lanean jarraitzen dugu.

Begarako EHE

LOIDI-GARITANO ANAI-ARREBE

Funeraria Arrasatek azalpenak eman nahi ditu 1998ko martxoaren 13an aldizkari honetan agertu zen kezkuaz.

Zera azaldu nahi dugu, alegia, hildakoaren etxean izan ginenen gure lana egiten, gaizki ulertu bat egon zela kalean jarri beharreko eskelen inguruan, eta horregatik ez zirela euskaraz publikatu.

Gure eskalak irakurtzen dituen edonor kontura daiteke egitura bi hizkuntzetan azaltzen dela, euskaraz eta gaztelaniaz, horrela familiartekoei eskatzen ditugutenean, testua euskaraz edo gaztelaniaz joan dadin.


Lekukoak ditugu familia askotan, gai honetan dugun jarrer horixe dela baieztatu dezaketenean.

Beste gauza bat ere argi nahi dugu: hildakoaren familiartekoa konturatu zirenean martxoaren 2an hiletak egin behar ziren egunean, testua gaztelaniaz zegoela, ez zigitela inondik eresan nahiago zutela eskala euskaraz idaztea. Azken kasu honetan ez zen inongo arazorik izango eta eskalak aldatu egingo ziren.

Beraz, gure ustez, Loidi-Garitanotarren kezua ez dator berrealitatearekin.

Funeraria Arrasate

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Irratia entzuteko ohiturarik badaukazu? Egoten diren tertuliak jarraitzen dituzu?



Jose Maria Crespo

Irratia entzuten dut, bai, baina tertuliei ez diet kaso handirik egiten. Ez daukat horretarako astirik; irratia goizean piskat entzuten dut normalean.



Maite Ganboa

Batzuetan, astia daukadanean jarraitzen dut. Normalean Euskadi Irratia eta Arrate emisorak entzuten ditut eta hor egoten direnak. Batez ere gauzez entzuten dut.



Agustin Heis

Irratian denetik entzuten dut, tertuliak ere bai. Tertuliak ere ondo egoten dira eta informazioa jasotzeko ondo daude. Radio Nervion entzuten dut askotan.

Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Iñaki Larrañagak mezu bat laga digu. Itxura batean Iñaki txirrinduzalea dugu eta joan zen eguenean Gorlara joan zen lagunekin afizionatuen eta beteranoen lasterketak ikusteko asmoz. Giroa primerakoa eta antolaketa ere bikaina izan zela aipatu digu Iñakik. Hala ere, badaukala ke-xatxo bat. Iñakiren arabera, karreran zehar etxe komertzial dexentek publizitatea, goxokiak eta horrelakoak banatzen dituzte, baina gero paper mordo bat jasotzeko geratzen dira errepidean. Ostiralean Gorlako aldatetan zabor asko zegoela dio. Urteroko kontua denez, hurrengo batean hori zaintzeko eskatzen du Iñakik.



Sonsoles Moreno

Gehienetan goizez entzuten dut irratia, goizeko 8:30etatik aurrera eta Ser irratia jarritzen dut askotan; Radio Euskadi ere bai. Aktualitateko tertuliak ondo daude.



Imanol Agirre

Irratia nahiko gustatzen zait, badaukat entzuteko ohitura, batez ere kiroletako gaiak jarraitzeko. Eguerdian Loiola Irratia entzuten dut askotan.




Nati Epelde

Irratia entzuten dut, batez ere hemengo gaiak jarraitzeko. Baina politikari buruzko tertuliak ez zaizkit gustatzen. Loiola eta Segura irratia entzuten ditut.

■ ikuspuntua: **asis iriondo**

Full Monty Ajurian



Aste honetan gauza askotxo bizi izan ditugu, bai gure herrixan, bai Euskal Herrixan ta baita nazioartian be. Gehixenak tristiciak, tristegixak aukeran. Horretako batzuk saltsa ederra sortu doste buruan.

"Titanic" unti haundixa hondorau eñ zan. Urte asko igarota, izen bereko pelikuliak sari pilla bat jaso dittu, baiña danok dakigu hondoraeziña zana itsasuak janda urpian daola. Oiñ dala hamar urte Ajuria

Enean mahai bat osatu zan; behin ta berriz gatazka konpontzeko mirari moduan saldu doskue, baita Titanica baiño indartsuau saldu be gaiñera.

Gaur egunian alderdi politikuak "Bihotzeko sekretuak" ezin gordeta dihardue - "L.A. Confidential" en baiño joku zikiña-guaz-, ezin dabe ezer adostu, hauteskundiak laister hemen dielako eta euren botuak gorde bihar ditztuztelako beste eze-

ren aurretik. Pipiak janda dauan mahaixa.


Arazo danak bere horretan dare eta horrela segidu ezkeru, urte askuan egongo die gaiñera; zoritxarrez hori be hola da.

Hori dala ta, hobe da mahai horren inguruan batzen dien politikuak lan barik lagatzia eta Oscarretako aste honetan ideia pare bat etorri jaku burura: "Full Monty" ren bigarren atala edo "Full Monty" euskalduna eñ.

Ikusgarrixa izango litzake benetan politiko horren itxuria ikustia zinian, edozein gauza eitten arazuak ahal dan bezela konpontzeko. B

■ asteko menua

Udako txangurroa



KOLDO ARRUTI
Osintxu asadorekoa

OSAGAIAK (2 edo 3 laguntzat)

- Txangurro bat
- Tipula txiki baten laurdena
- Arrautza gogorra (1)
- Tabaskoa (2-3 tanta)
- Ardo zuria (txorrostadtxo bat)
- Maionesa
- Gatza

PRESTAKETA

- Ura gatz piska batekin irekiten jarri (hobe itsasoko ura erabiltzen bada) eta irekiten hasten denean txangurroa oso osorik uretan jarri.
- Berriz ere irekiten hasten denetik 12 bat minutu pasatutakoan, txangurroa uretatik atera.
- Hozten denean, txangurroari mami guztia atera.
- Arrautza gogorra eta tipula txikitu eta txangurroaren mamiarekin nahastu.
- Ardo zuria eta tabaskoa gehitu eta, azkenean, maionesa piska bat bota; osagai guztiak ondo nahastu eta txangurroaren koskolean sartu.
- Hozkailuan ordubete inguru hozten eduki mahaira atera aurretik.

■ adituen esanetan

Kiloak zela kendu

LUPE GARCIA, *dermoestetizista*

Sasoi honetan jende asko ardura-tzen da neguan irabazitako kiloak kentzeko metodoekin. Kilo gutxi batzuk (3-5 kg. bitarte hori) kentzea ez da horren zaila. Gehiegizko pisurik ez dagoenean, tratamendu estetiko konbinatua ondo etorri daiteke bolumen piskat gutxitu, azala tonifikatu eta gorputza moldeatzeko. Bestelakoetan, berriz, kasu bakoitzarendako tratamendu egoki bat izango da eta dietari dagokionez, beharrezko neurrian, proteinak, karbono hidratoak eta grasak ezinbestekoak dira. Pisua kentzeko, 1.200 kaloria behar baditugu, elikagaietan kaloria horiek ba-

natu egingo ditugu eta jendeak ez dezala pentsa entsalada gehiago jateagatik azkarrago argaltuko denik. Onena denetik jatea izaten da, bariatatea, eta dieta egitekotan, medikuaren gomendioei jarraitu eta sufrimendurik gabeko dieta betetzea. Hau oso inportantea da.

Ariketa fisikoa egitea ere pisua kentzeko baliogarria izan daiteke, baina kirola egin aurretik eta ondoren jaten duguna kontutan izanik. Badira argaltzeko pastilak hartzeko ohitura dutenak; Ez naiz horren aldekoa, azkar galtzen duguna azkar errekuperatzen baitugu pastilak hartzeari lagatzean. B

■ bergarako gordailuti

GURE AURREKO "DISZIPLINANTEAK"

Imanol Sorondo

Farrituta gelditzen gara Errioxako herriren batean "disziplinanteak" prozesioan ikusten ditugunean. Ba... Bergaran gure aurrekoen artean ere bazeuden. San Pedroko parrokiaren Zigorzaileen Kofradia 1576. urtean sortu zen; Antzuolako berriz, orduan Bergarako mugen barrenean, urte batzuk lehena.

San Pedrokoak 1580. urtean 216 lagun zituen, 146 gizonezkoak, tartean 12 apaiz, eta 70 emakumezkoak. Antzuolan, 100 urte beranduago, 368 lagun ez osatutako kofradia.

Ez goaz San Pedroko kofradia honen bizitza idaztera, oso luze joango litzaigukeelako; bakarrik adierazi, Ostegun Santuko prozesioa bere esku zegoela, eta Magdalenako elizan, ospitalean, zutela bere ohizko lekua. Ostegun Santuan ateratzen ziren zigortzaileak, soingaineko bereziekin bere bizkarrak zigortzen. Eta ez egun horretan bakarrik; kofradietako asmoetan zegoen gudetan, izurrietan, ekaitz jasaldi haundietan eta abar ere, prozesioak zigortzaileekin prestatzea.

Sendagileak eta emakume batzuek zauriak eta urratuak garbitu eta sendatu egiten zizkieten seboa eta hautsekin; ondoren, gazta edo patxak, erroskilak eta opiltxoak eta ardoa izaten zituzten.

Bi klase zeuden kofradian, norberak aukeratzen zuenaren arabera, zigortzaileak eta laguntzaileak; horiek prozesioetan kandelak piztuekin laguntzen zieten haiei.

Zenbat ateratzen ziren bere buruak zigortzen?... Ez dakit; behin urte bateko zuzentzaileak aurrekoengandik 14 zigor jaso zituzten, eta beste 14 gehiago egin ondorengoei emateko; soingainekoak gehixeago. B



BITTOR POZA

Punteria finekoak


Rodrigo Suarez segobiarrak eraman zuen eguenean Nahikari tabernan jokatuako dardo lehiaketako lehen saria. Rodrigok Euskal Herrian igaro zuen San Joseko zubia eta Bergaran zegoela dardo lehiaketaren berri izan zuen. Western-etako pistoleroen antzera, bertan aurkeztu eta punteriarik onena berak erakutsi zuen. Bigarren tokian **Rafa Alcaide** sailkatu zen eta hirugarrenean **Valex** atxabaltarra. Hirurek trofeo bana eskuratu zuten. Guztira, 20 partaide izan ziren eta lehiaketa kanporaketa sistemarekin jokatu zen. Partaideek **2,50 metroko** distantziatik jaurti behar izan zituzten dardoak.

Zazpigarren koparen bila

Peña Madridista Mahonerako hainbat lagun **Real Madrid eta Bayern Leverkusen** taldeek aurreko eguaztenean Madrilen jokatuako partidua ikusten izan ziren. Arrasate eta Bergarako 54 lagun abiatu ziren Madrilerara eta euren taldearen garaipenarekin gozatu ondoren, goizeko zazpi terdiak aldera Bergaran ziren berri. Madrildarrak aurre-finalean dira dagoeneko eta Bergarako zaletuek, aurrez, luzaroan desiatutako Europako zazpigarren kopa lortzeko itxaropena daukate.



Informaziorik gabeko panelak



Diputazioko Garraio eta Errepide Departamentuak oso panel dotoreak jarri zituen duela hilabete inguru herriko autobus geltokietan. Panelak, teoriarik behintzat, autobusen ordutegiak azaltzeko jarri ziren baina oraingoz ez da inolako informaziorik ematen bertan. Pesako autobusen erabiltzaileak hor izango dira, erlojuari begira, autobusa noiz azalduko zain. Paneletan agertzen diren datuei begiratuta, ziur autobus guztiak puntualak izango direla... Ea panel horiei funtziorik ematen dieten.

Jokin eta Marianen ezkontza

Marian Gonzalez irundarra eta **Jokin Elkoroberezibar** bergararra **Irunen** ezkondu ziren aurreko zapatuan. Epaitegian elkarri baietza eman ondoren, ezkonberriak senide eta lagunekin bildu ziren Hondarribiko Beko-Errota jatetxean. Eguraldiak ere lagundu zuen eta giroa primerakoa izan zen egun osoan zehar. Zorionik beroenak Marian eta Jokinentzat!!



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Arrasate Tf. 79 49 72

Olarte 41



- BEHIN ERABILI ETA BOTATZEKO MATERIAL KLINIKOA

- DISEINU AUKERA ZABALA

- BITXITEGI PROFESIONALA:
ALTZAIRU KIRURGIKOA, TITANIOA,
ETA ABAR.

- OINETAKOAK

T
O
T
E
M

t
a
t
u
a
j
e
a

Pearcinga eta tatuajea

Gero eta gazte gehiago gorputza apainduta



Apaingarri gisa piercinga (gorputza zulatzea aro, eraztun txikiak edota kateatxo txikiak jartzeko) edota tatuatzea modan dago azkenaldian. Gure herrian ere gero eta gazte gehiago dira beraien itxurari ikutu berri bat ematera ausartzen direnak. Orain dela urte batzuk bainaka baten marka adierazgarria zena, eguneroko gauza bilakatu da gaur egun.

Argazkiak: Amaia Labaien


Bergaran piercinga eta tatuajeak egiteko lokalik ez dagoenez, horretarako interesa duen jendea Bilbo, Arrasate, Aretxabaleta, Donostia, Lekeitio edota Euskal Herritik kanpo ere joan behar izan da bere gorputza apaintzera. Bilboko Alde Zaharrean adibidez, piercing eta tatuajeak lantzen dituen Logan saloia dago. Bertako arduradunetako bat den Javi Lomasek adierazten digun moduan, "orain urte batzuk ez nuen sekula pen-tsatuko piercinga hain arrakastatsua bi-

lakatuko zenik. 1975. urtearen inguruan zabaldu ziren honetan jarduten zuten lehen lokalak Estatu Batuetan, Los Angelesen, eta ordutik piercingak hazkunde nabaria izan badu ere, azken urteotakoa zoratzekoa izan da eta artista ezagunen eraginak zerikusi handia izan du horretan. Oso momentu onean gaude, gehienbat gazte jendea etortzen da eta, proportzioan, herrietako jendea dela nagusi esango nuke. Adinari dago-kionez, bada ezberdintasun bat; gazteek nahiago dute ikusten den tokietan

egitea, zilborrean eta sudurrean batez ere, eta nagusiek, berriz, genitaletan". Lomasek hiru urte daramatza profesional modura eta kostatu zitzaion, bai, benetako maisu on bat topatzea: "hasieran zorte txarra izan nuen, profesionala ez zen jendearekin ikasi bainuen, Dave Deacon, nire benetako maisua izan denarekin topo egin arte. Berak erakutsi zidan dakidan guztia. Zoritxarrez, profesionala ez den jende asko dago negozio honetan sartuta. Piercinga ondo egiten ikasteko gutxienez bi

Gazteek gorputzeko apaingarri gisa erabiltzen dute body piercinga. Zulaketak instant batean egiten dituzte honetara dedikatzen direnek.

Arrasate Tf. 79 49 72



urte behar direla esango nuke. Eta hortik aurrera profesioa gustatzea eta, gauzak ondo egiteko, abilezia izatea; zula-
ketak azkar egitea, mingarriak gertatu ez daitezten. Piercinga ondo egiten bada, ez du minik ematen; instant batean egiten da eta anestesiarik ez erabiltzeko joera dago gaur egun. Azkarrago orbaintzeko hobe da gainera anestesiarik ez erabiltzea”.

Minik ez piercingarekin

Ainara eta Saioa Garitano ahizpek ez dela minik sentitzen baieztatzen digute. Ainarak zilborrean piercinga egitea erabaki zuen eta Saioak, berriz, bekairean. Ainararen hitzetan, “lehenbizi zilborra begiratu zidaten ea zuloa egiteko modua neukan ikusteko. Gero, pintza kirurjikoekin azala tiratu, puntzoi batekin zuloa egin eta aroa sartu, besterik ez da. Pintzek presio handia egiten dizutenez, ez da ezer igartzen. Gero begiratzen duzunean inpresio pitin bat egiten dizu, baina ez da ezer... Piercinga pistolarekin eginez gero, mingarriagoa da”. Ainarari betitiki gustatu izan zaizkio belarritakoak eta telebistan piercingari buruzko erreportaia bat ikusi ondoren Bilbora joateko animatu zen. Saioa bere ahizpak esaten duen moduan, “piercinga berehala egiten da, baina orbaina egiteak denbora luzeagoa eskatzen du, sei hilabate kasu batzuetan. Eta egin eta berehala neurri asko hartu behar dira; sueroa erabili behar da garbitzeko, ezin da alkoholik

edan lehenbiziko egunetan... Egiten ditzuten tokian informazioa osoa ematen dizute eta, beraz, kontrol bat eraman behar duzu arazorik ez izateko”. Saioari ezpainak zulatzea ere gustatuko litzaioke beharbada etorkizunean... Bestalde, tatuajeek errespetu handiagoa ematen dietela esaten digute bi ahizpek: “gustatzen zaizkigu tatuajeak, txikiak batez ere, baina gehiago pentsatu eragiten dizute, betirako geratzen dira zure gorputzean eta aspertuz gero ez dago atzera egiterik, piercingarekin badaukazu aukera aroak edo dena delakoak kentzeko”.

Sentsazio bereziak


Alex Osunak ez du uste mingainean egindako piercinga sekula kenduko duenik. Lagun batek animatuta egin zuen Bilbon joan zen urteko maiatzean eta ez da batere damutzen. Hasieran, astebete egon behar izan zen elikagai solidoak jan gabe, zauria ondo sendatu arte baina orain piercingak oso sentsazio onak ematen dizkiola esan digu: “oso nekeza da azaltzen; adibidez, ur hotza edatean, ahoan sentitzen dudana oso atsegina da, ura eta mingainean

dudan altzairuzko bolaren arteko kontraste hori. Gainera, nire hizmoteltasuna hobetzeko ere ondo etorri zait; lehen totalago hitz egiten nuen. Hizmoteltasuna zertxobait zuzendu zait; lehen mingain azpian hezur bat jarri eta horrela hitz eginez konpontzen zela entzuna dut eta niri antzeko zerbaitek gertatuko zitzaidan beharbada”. Espermentatzeko gogoia dauka Alexek eta beharbada zakilean beste piercing bat egingo duela esaten du. Sorbalda inguruan ere esanahi berezia duen tatuaje bat egitea gustatuko litzaioke baita.

Sergio Romerok belarrarian eta zilborrean egin du piercinga eta gaur egun horrelakoak egitea gauza normala bilakatu dela diosku: “orain dela urte batzuk txokatu egiten zizun sudurreran piercinga zeraman jendea ikusteak, baina gaur jende askok egiten du. Modan jarri da, izugarri zabaldu da azken urteotan eta etxean ere ez digute eragozpenik jarri egiteko. Musika edota zineko izarrek, batez ere, jarri dituzte modan eta gazte jendeak bereganatu egin du hori. Ez gara desberdinak sentitzen hori eramateagatik, gustatzen zaigun gauza bat da eta kitto. Eta aspertuz gero kentzeko aukera dago. Ta-

“Orain urte batzuk ez nuen sekula pentsatuko piercinga hain arrakastatsua bilakatuko zenik. Oso momentu onean gaude gaur egun” JAVI LOMAS





"Tatuaje bat egiterakoan, zenbaitzuk gauzak argi dauzkate hona etorri aurretik. Ondo pentsatutako erabaki bat izan behar da" IÑAKI SALAS

Gazteek nahiago dute piercingak ikusten diren tokietan egitea, zilborrean, sudurrean edota bekainean esate baterako. Horrez gain, badira mingainean eta genilaetan egiten dituztenak ere.

tuajeak? Ez dakit, hankan egingo nuke, baina hiruzpalau urtera desagertzen den horietako bat egingo nuke, probatzeko".

Iñaki Salasek lau urte daramatza Bilbon tatuajeak egiten. Gorputz osoan egiten du lan eta bere kasa ikasi zuen tatuajeak egiten. Azken urtean 1.000 tatuaje inguru egin ditu eta bere gorputzean zazpi tatuaje daramatza. Bere hitzetan, "tatuajeak zerbait berezia esan behar dizu, zure izaerarekin bat etorri behar da; beraz, ezin da bat-bateko erabakia izan". Iñakik ere gazte jendearekin batik bat egiten du lan eta berak azaldu digunez, "honetan lan egiteko norberaren buruarekin zintzoa izan behar da, zure mugak ondo ezagutu behar dituzu eta beste pertsona baten azalean lan egitean, perfekzioa bilatu behar da tatuaje on bat lortu ahal izateko". Berarengana hurbiltzen diren bezeroei 5.000 marrazki inguru biltzen dituen katalogo bat erakusten die egin nahi duten tatuajea aukeratu dezaten: "zenbaitzuk gauzak argi dauzkate hona aurretik, badakite zer nahi duten, baina gehiengoari aholkatu egin behar zaio. Bestalde, bada nesken eta mutilen arteko ezberdintasun bat; neskek normalean detaile txikiak egiten dituzte bizkarrean edo tripan eta mutilek besotetan eta hanketan gehiago". Badago denboraldi baterako diren tatuajeak egiteko aukera baina, Iñaki betirako di-

ren tatuajeen aldekoa da: "lau bat urterako diren tatuaje horiek galtzen doaz piskanaka-piskanaka eta zer egiten duzu denbora horretan gustatu bazaizu? Horregatik esaten dut ondo pentsatutako erabaki bat izan behar dela tatuaje bat egitea".

Tatuaje bat egiteak, batzaz beste, lau bat ordu eskatzen du (beti ere neurriaren arabera) eta egiteak molestia batzuk sortzen dituela aitortu digu Iñakik: "orratzak ez du minik ematen baina denbora asko egotean eta, batez ere,

oso sensibleak diren azalen kasuan pisikat sufritu beharra dago, baina oso gutxi. Ezin duzuna da minik izango ez duzun ideiarekin etorri". Jendeak tatuajei buruz zuen ikuspegia erabat aldatu ei da azken hamarkadan: "ez dut uste orain modan jarri denik; gertatzen da aukera asko dagoela eta jendeak beste ikuspegi bat daukala, jende nagusiak, batez ere. Lehen tatuaje bat egiteko Londres edota Amsterdamera joan beharra zuen jendeak eta orain, berriz, herri denetan dago egiteko aukera". B

Tatuajeak kentzeko teknikak

Cristina Garciandia dermatologoak azaldu digunez, gaur egun tatuajeak desagertazteko erabiltzen diren teknikak oso aurreratuta daude: "orain arte Laser CO2 eta Laser Argon deritzanak erabili izan dira eta Laser Rubi (Q interruptorearekin) oso hedatua dago gaur egun. Beti ere orbaina geratuko da, baina denbora joan ahala teknikak hobetuz doaz eta jendeak erabiltzen ditu. Izaten dira tatuajeak kendu nahi dituztenak, baina azala ez da sekula ere tatuajea egin aurretik zegoen moduan geratuko". Bestalde, tatuajea egiteko orduan dagoen arriskuari dagokionez, profesional on batengana zuzendu ezean, gaisotasunak (tartean VIHa) kutsatzeko arriskua eta koloranteekiko hipersensibilitatea aipatu dizkigu Cristinak: "Gorria lortzeko, adibidez, merkurio sulfuroa erabiltzen da asko eta horrek alergiak sortzen ditu kasu batzuetan, bestela tatuajea egiteagatik azalak ez dauka zertan sufritu". Piercingaren kasuan, bestalde, hasieran eman daitekeen infekzio arriskua besterik ez dagoela esan du, "batzuetan zilarrezkoak ez diren aroetan nikelarengatik alergiak sortu baitaitezke".

Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:30: Erdibiterak-Amilotx
10:30: Guadalest-La Juve

Guadalest
Erdibiterak

ZAPATUAN KANPOAN

16:00: A Ze Flaxa Etxagi-Ortzi
17:00: Artusamak-Shaktale
18:00: Agiñaspi-Etxagi
19:00: OH Zerezos-Bar Canalejas

Shaktale
Ze Flaxa
Artusamak
Etxagi

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Erdibiterak-Txipiron
10:30: Ganbara Ari Ari-Txipiron
11:30: A Ze Flaxa Etxagi-Errotagain
12:30: Bildurbarek Opel/Lam-Agiñaspi
16:00: Ortzi-Mongatxurrak
17:00: Errotagain-Bar Canalejas
18:00: Ezinleike-Manitou
19:00: Agirrebeña Jatetxea-Ufala

Ganb. Ari Ari
Errotagain
Agiñaspi
A Ze Flaxa
Bar Canalejas
Mongatxurrak
Agirrebeña
Manitou

DOMEKAN KANPOAN

11:30: Erdibiterak-Igandekoak

Manitou

argi!

Azken jardunaldia

Lehen eta laugarren mailan partidu erabakiorrak jokatu dira asteburuan, ligako azken jardunaldian. Lehen mailan, Etxagi, Jauja OH Zerezos eta Bildurbarek Opel/Lam taldeek partidu garrantzitsuak dituzte, baita A Ze Flaxa Etxagik ere. Laugarren mailan, berriz, Ganbara Ari Ari, Etengabe eta Txipiron bigarren postua eskuratzeko borrokan arituko dira.

jokoz kanpo



Asier Garcia
BILDURBAREK
OPEL/LAM

- G.** Zer moduz zabilzate?
E. Gaizki. Azkenaldian jende gutxi joaten gara partiduetara eta horrela ezin da.
G. Zer postutan geratzea espero duzu?
E. Erdialdean sailkatzen bagara ondo. Orain dela urteak, Txapelketa hasi zenetik daramagu lehen mailan eta helburua ez jaitea da.
G. Kopan zerbait egiteko aukerarik baduzue?
E. Aukerak denerako dauzkagu. Denok joaten bagara, zerbait egin dezakegu.
G. Txapelketako talderik onena?
E. A Ze Flaxa Etxagi.
G. Zure taldearen gauzarik onena?
E. Golak errez sartzen ditugula.
G. Eta txarrena?
E. Antolakuntza falta. Luis Fernandez bat falta zaigu.
G. Liga zeinek irabaziko du?
E. Bartzelonak.
G. Eta Frantziako Mundiala?
E. Espainiak.
G. Ligako jokalaririk onena?
E. Figo
G. Reala Uefarako sailkatuko da?
E. Bai eta Athletic ere bai.

gora eta behera



Aurrean dabilzanak

Liga txapelketa amaitzear dago: batzuek amaitu dute dagoeneko eta, gainontzekoek, asteburu honetan jokatu dituzte azken partiduak. Play-offak eta Kopa txapelketa jokatu bitartean, aitortu behar da aurreko postuetan geratu diren taldeek egin duten lana, batez ere bigarren mailako Manitouk, askorentzat, txapelketako onena. Datorren urtean lehen mailan jokatu du eta, aurretik, Play-offak irabazteko faborito nagusia da.



SLO eta Ezinleike

SLO taldeko hiru jokalaririk bakarrik aurkeztu ziren joan zen domekan, Manitouren kontrako partidua jokatzera. Formalitate gutxi. Ondorioz, partidua 3-0 irabazita eman dio Antolaketa Batzordeak Manitou taldeari. Bestalde, Ezinleike taldeko inor ez zen joan domeka arratsaldean Bayer taldearen kontrako partidua. Ezinleikekoak, ondorengo partidua arbitratu behar zuten eta ez zen inor agertu. Ezinleikeri bost puntu kendu zaizkio.

emaitzak

Bildurbarek Opel/Lam-Arloteak/Oilagorra	34
Azpeitxi Jatetxea-Pagomendi	33
Amozkibar-FAC	1-11
Bayer-Ezinleike	34
Manitou-SLO	34
Ganbara Nekrofilikos-Autoberezi	24
Komando Piperrak-MRW	23
Indargarri-Eri Sirimiri	14
Uve Bikoitza-Jakina Patxaran Team	04
Matxakategi-Aldoka Maldoka	24
Amilotx-Usoa	24
Patatus-Igandekoak	33
Polideportivo Taberna-La Peña DML	13

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Mongatxurrak	43	21
2. A Ze Flaxa Etxagi	42	20
3. Pagomendi	39	22
4. Bar Canalejas	36	20
5. Errotagain	34	20
6. Azpeitxi Jatetxea	30	22
7. Etxagi	30	21
8. Jauja OH Zerezos	27	21
9. Bildurbarek Opel/Lam	27	21
10. Ortzi	21	20
11. Agiñaspi	15	20
12. Arloteak/Oilagorra	7	22

Bigarren maila

	P	J
1. Manitou	30	10
2. Shaktale	25	10
3. Artusamak	20	10
4. FAC	18	11
5. Bayer	18	11
6. Guadalest	15	10
7. SLO	12	11
8. Agirrebeña Jatetxea	10	10
9. La Juve	7	10
10. Ezinleike	6	10
11. Amozkibar	5	11
12. Ufala	5	10

Hirugarren maila

	P	J
1. Autoberezi	24	10
2. Uve Bikoitza	18	10
3. Moskis	16	10
4. Jakina Patxaran Team	16	10
5. MRW	16	10
6. Ganbara Nekrofilikos	15	10
7. Matxakategi	12	10
8. Eri Sirimiri	12	10
9. Indargarri	10	10
10. Komando Piperrak	9	10
11. Aldoka Maldoka	6	10

Laugarren maila

	P
1. Usoa	22
2. Ganbara Ari Ari	18
3. Etengabe	18
4. Txipiron	18
5. Polideportivo Taberna	16
6. La Peña DML	13
7. Amilotx	12
8. Erdibiterak	12
9. Igandekoak	11
10. Gazteak	3
11. Patatus	-2

ESKOLAKI KIROLAK

IKUSI ETA IKASI

FUTBOLA: Ateko sakea

Defentsan ari den ekipoari emandako sakea da. Baloia azkenengoz ekipo erasotzaileak jokalarari batek ukitu ondoren ateko murratik ateratzen da. Baloia area txikiko edozein tokitan jarriz egiten da sake hau, eta baloiak area handiko marra gainditu beharko du.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



TXINPARTAK

Alebin mailako Deba Garaiko finalak asteburuan

Alebin mailako Deba Garaiko finalak eta finalerdiak jokatu dira zapatuan. Saskibaloiko finalerdiak Arrasaten jokatu dira eta Bergararik mutiletan Aranzadi 10 eta nesketan Aranzadi 14 sailkatu dira. Eskubaloiko finalak, berriz, Eskoriatzan jokatu dira eta mutiletan San Martin Agirre taldekoak izango dira eta nesketan Antzuolakoak.

Pilota partidu interesgarriak

Alebin mailako pilotariak Deba Garaiko txapelketako partiduak jokatu dituzte zapatuan 15:30etan Antzuolako pilotalekuan, Bergararik joateko Udal pilotalekutik 15:15etan kotxeak irtengo dira. Infantilak 15:30etan Zabalotegin arituko dira.



Aranzadi 9 alebinak. Mutilak

Aranzadi 9 alebin mailako taldea Iosu Goñi, Xabier Azurmendi, Iosu Gonzalez, Raul Sanchez, Markel Eguren, Gorka Fuljan, Beñat Labaien eta argazkian agertzen ez diren Ander Amasorrain, Alain Carazo eta Aitor Gomezek osatzen dute. Futbola eta pilota dira gehien gustatzen zaizkien kirolak. Txapelketarik ez dute irabazi, baina datorren urtean lortuko dutela uste dute. Izan ere, txapelketako jokalariek gazteenak dira eta adina asko igartzen omen da: "nagusiek indar gehiago daukate eta hobeak dira" esan digute.



M. Lagundia A alebinak. Mutilak

Mariaren Lagundia A alebin mailako taldea Mikel Irizar, Josu Agirrezabal, Iñaki Lasa, Iñaki Manuel, Alvaro Macho, Roberto Gil, Asier Carvalho, Borja Olabarria, Unai Aranzabal eta Ion Igartuak osatzen dute. Futboleko finala Antzuolaren kontra jokatzeko sailkatu dira eta irabaztea nekeza ikusten dutela diote. Futbola eta pilota dira gehien gustatzen zaizkien kirolak eta Retegi eta Realzaleak omen dira. Realeko jokalariek bat aukeratzekoan Bonba eta Aranzabalen artean banatzen dira. Bukatzeko zera diote: nahiago dutela kirola egin eskolara joan baino.

SAILKAPENA

ESKUBALOIA

Benjaminak

Aranzadi 6	14
Antzuola B	13
M. Lagundia A	12
Antzuola A	10
San Martin	10
Aranzadi 3	8
M. Lagundia B	6
Aranzadi 5	6
Aranzadi 1	5
Elgeta	4
Aranzadi 2	4
Aranzadi 4	3

SASKIBALOIA

Alebinak/Mutilak

A MULTZOA

Aranzadi 12	8
Antzuola	6
Aranzadi 7	4
M. Lagundia B	2
Aranzadi 9	0

B MULTZOA

Aranzadi 10	8
Aranzadi 11	6
M. Lagundia A	4
San Martin	2
Aranzadi 8	0

Alebinak/Neskek

Aranzadi 13	6
Aranzadi 14	4
Antzuola	2
San Martin	0

Futbola



BKEko talde nagusiak 0-6 irabazi zion, erreztasun osoz, Azkoitiko Anaitasuna taldeari. Txerloian jokaturako partiduen hasieran azkoitiarrak eutsi egin zieten Bergarakoen erasoei, Gallastegik lehen gola sartu zuen arte. Atsedendialdian ondoren, Errastik bi gol sartu zituen eta gainontzekoak, Zelaia, Unamuno eta Jokinek sartu zituzten. Honelako emaitzak lortzen jarraitzen badute, ez dute inongo arazorik izango mailaz igotzeko.

Domekan Agorrosinen jokaturako dute Aloña Mendiren kontra. Partidu erreza dela dirudi, oñatiarrak bederatzigarren postuan aurkitzen baitira. Aukera polita izan daiteke mahoneroentzat igandekoa puntuak lortzen jarraitzeko.

Eskubaloia



Eskubaloi talde nagusiak atsedendialdia izan zuen joan zen astean. Mailari eutsi ondoren, bederatzigarren postuan sailkatuz, zapatuan Elgoibarren aurka neurtuko dituzte indarrak. Gipuzkoako Kopa etxera ekartzeko itxaropenak dituzte Lijoren mutilek eta Elgoibar mailaz jaitsi dela kontutan hartzen badugu, hasiera polita izan daiteke.

Guztira zortzi taldek hartuko dute parte eta jardunaldi bakarreko zazpi partidu izango dira. Kadete mutilek, bestalde, errez irabazi zioten Almen Txiki taldeari 25-13. Bi jardunaldiren faltan, liderrarekin parekatuta daude puntutan. Gazte mailakoek ez zuten suerterik izan, 3 goleko diferentziagatik galdu baituzten Beasainen aurka.

Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergarak 95-88 irabazi zion 2. postuan sailkatuta dagoen Antonio Erro-ri. Partidua Arrasaten jokatu behar izan zen Labegaraietako saskia konpontzeke baitago oraindik. Conderen mutilek ez zuten zailtasun handirik izan partidua irabazteko.

Une honetan, laugarren postuan dagoen taldearekin parekatuta daude puntutan, zazpigarren postuan izan arren. Oraindik mailaz igotzeko aukera eta esperantza ez dute galdu. Zapatuan etxetik kanpo jokaturako dute bigarren itzuliko partidua, lehen postuan dagoen Portugaleteko Jarrilerosen aurka. Bestalde, jubenilak eta kadeteak ez ziren hain ondo ibili, 17 eta 18 punturen aldeaz galdu baituzten biek, Intxaurrendokoen aurka.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Aloña Mendi
Lehen mailako erregionala.
Domeka. 16:30. Agorrosin.

Bergara-Intxaurrendoa
Lehen mailako jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

Bergara-Tolosa
Bigarren mailako kadeteak.
Domeka. 15:30. Ipintza.

Bergara-Zumaiako
Neskak.
Domeka. 10:00. Agorrosin.

ESKUBALOIA

Bergara-Leitzar
Kadete neskek.
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.

Iraundi Bergara-Elgoibar
Senior mutilak.
Zapatua. 18:00. Labegaraieta.

SASKIBALOIA

Bergara-Santo Tomas Lizeoa
Jubenil mutilak.
Zapatua. 16:00.
Mariaren Lagundia.

Bergara-Athletico SS
Jubenil neskek.
Zapatua. 17:30.
Mariaren Lagundia

NESKEN IV. FUTBITO
TXAPELKETA

Zapatuan, M. Altuna institutuan.

Nifis-Potzu Ta Zapaburuak
Arb. Antolaketa Batzordea. 16:00

The Road Island-Azkenak
Arb. Antolaketa Batzordea. 16:00

Domekan, M. Altuna institutuan.

Gu Geu-Zutaz Pentsatzen
Arb. Antolaketa Batzordea. 12:00

PILOTA

• Deba Arroko finalerdia:

Bergara-Eibar
Jubenilak binaka.

Bergara-Elgeta
Seniorrak binaka.
Martitzena. 19:30.
Udal Pilotalekua.

• Profesionalak:
Lau eta erdian:

Tolosa III-Errandonea II
Binaka:

Salaberria eta Zezeaga
Berasaluze VIII eta Beloki
Eskuz banakako txapelketa:
Nagore-Balardi
Zapatua. 16:45. Udal pilotalekua.

ANDER AGIRRE / Txirrindularia

"Ez naiz lasterketa luzeetara ohitu"

Uzarragako lasterketan izango da igandean. Bergararrak 70 kilometro egin behar harko ditu eta momentuko egoera ikusita, lasterketa irabaztea, ez litzateke ezustekoa izango.

G. Noiztik txirrindularitzan?

E. Duela lau urte gutxi gorabehera. Kasualidadez hasi nintzen eta orain, dirudienaz, gauzak ondo ateratzen ari dira. Kirol gogorra da kilometro asko egin behar direlako, baina korrika egitea gogorragoa da.

G. Zela ibili zara aurtengo lasterketetan?

E. Nahiko ondo. Eibarren, Azpeitian eta Arrasaten izan dira. Azken honetan laugarren gelditu nintzen.

G. Teknika berezirik erabiltzen duzu?

E. Normalean ez. Entrenatzaileak emandako gomendioak jarraitzen ditut eta momentuan dagoen indarraren arabera erabakitzen dut tropeletik ihes egin edo ez. Azken aldi honetan lasterketak inguruan izan dira eta hori abantaila da, bideak ezagunak izaten dira eta.

G. Entrenatzen, zenbat kilometro egunean?

E. 60-65 inguru. Normalean Oñatirantz joaten naiz. Lasterketa bat izan aurretik edo ondoren gutxiago entrenatzen dugu, indarrak izan behar direlako eta atsedean hartzeko.

G. Zer nolako lasterketak atsegin dituzu?

E. Oraindik lasterketa luze-

tara ohitu gabe nago. Aldapa gehiago izan arren, motzak nahiago ditut.

G. Lasterketak jarraitzen dituzu?

E. Bai. Telebistatik normalean. Giroa da gehien atsegin dudana.

G. Eta txirrindulari gustokoena?

E. Ullrich eta Olano.




Bergarako pilotariak sasoi onean

Gipuzkoako Ligako finala jokatuko du Muruamendiarazek

Gutierrez eta Aranzeta txapelkun geratu ziren (22-10), joan zen larunbatean Areetan jokatutako junior finalan. Bergarakoek, ordu bete inguru iraun zuen partidu gogorra izan zuten Lemoako bikotearen aurka.

Emaitzean alde handia izan arren, hasierako puntuak lortzea ez zen erreza izan, Erauskin atzelariak egindako lanarengatik. Baina Lemoako bikoteak utzitako aukerak aprobetxatuz, bederatzigarren tantua lortuz gero, aurretik izan ziren bergararrak partidu bukaeraino. B.K.E taldeak lorturiko lehen saria dugu hau.

Bestalde, Muruamendiaraz eta Idiakez-ek, Gipuz-



Gutierrez eta Aranzeta Areetan jokatutako junior txapelketako irabazleak izan dira.

koako Ligan sailkatu ondoren, hilaren 3an beste sari bat lortzeko aukera izango dute, Aretxabaleako Errasti

anaien aurka duten partiduan. Iker Muruamendiarazek final gogorra izango dela esan digu. "Finalera hel-

tzea ez da erreza izan. Partidu asko izan dira eta noiz-behinka, Edu Samaniegok jokatu behar izan du nire postuan. Finalerdietan, esaterako, arazoak izan genituen, galtzen hasi ginen eta Errasti anaien aurkako partidu batzuk irabazi arren, Gipuzkoako Ligan lehen postua lortu dutela kontutan izan behar da. Bestalde, Bergaran denez, ikusleak eta kantxa alde ditugunez, horrek ere lagunduko digula uste dut".


Partidua ETB-1etik ikusi ahal izango dugu datorren eguakitzean. Ea partidu polita ikusteko aukera izaten dugun eta txapela Bergaran gelditzen den. B

Zaletu ugari Gorkako igoeran

Juan Manuel Garate (Iberdrola) irundarrak irabazi zuen San Jose egunean jokatu zen Gorkako igoeraren XXIV. edizioa, sprintean Jonathan Hall (Banka) eta Peio Arreitunandiari (Olarra) nagusitu ondoren. Irabazleak 20 minutu eta 33 segundu behar izan zituen lasterketako 8,5 kilometroak egiteko eta errekor berria ezarri zuen, iazko irabazlearen denbora 39 se-

gundutan hobetuz. Eguraldi bikaina egin zuen eta lasterketa jende askok jarraitu zuen, Itxumendiko gainaren azken maldetan batez ere.

Afizionatuen lasterketan 88 txirindularik hartu zuten parte eta argazkian ikus dezakezuen Ion Unamuno (Born Jay) izan zen bergararik onena. Unamunok 31. postua lortu zuen, 22 minutu eta 50 segunduko denbora eginez. Aritz Kortabariak




(Igartua-Moser), lasterketan parte hartu zuen beste bergararrak, 30 minutu eta 29 segunduko denbora egin zuen. Beteranoren mailan, Gorkako igoera lau aldiz irabazi duen Jose Fernandez kantauriarra izan zen onena (22' 14") eta Koldo Lamikizek zuen errekorra hautsi zuen. B

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 76 53 12



Irizar 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

IZADI PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 beheka.
☎ 76 58 83

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 76 62 02 eta 908 77 64 91(mobila)

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai Donostian. 76 31 79.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Pisu amueblatua salgai Martokan. 76 46 70.

Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartu edo konpartituko nuke. 76 40 33 (Ramon).

Lokala hartuko nuke alokairuan. 76 03 31.

Baserri baten bila gabiltza bertan bizitzeko. 907 48 07 52.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Arane-

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartitua
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

rekan (2 plaza itxita). 76 06 96.

Garajea salgai Martokan. 76 35 50.

Garajea salgai Burdifiñaten. 38 m². 76 19 54.

Kotxe txiki batendako garajea salgai Iburgarain. 650.000 PTA. 76 57 93.

Garajea Torrekuan. 950.000 PTA. 76 19 72.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokai-

ruan Torrekuan. Deitu 763032 telefonora.

Garajea alokairuan Iburgarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. Deitu 7650 00 telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 7605 17.

Burdifiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. 76 70 63.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 76 11 89.

Lokala salgai A. Flemin-gen. 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokan. 76 25 67.

Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala

erosiko nuke. Deitu 76 29 95 telefonora.

Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko

industrialdean 200 m² lokala alokairuan. 76 35 09.

Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintxun. Deitu 76 08 21 telefonora.

40-100 m² bitarteko bitarteko lego baterako lokala alokairuan hartuko nuke Bergaran, herri erdian edo industrialean. 76 24 33 (21:30-22:30).

4. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako errenta litzuzke. 76 00 90.

Neska batek astebuka eretan helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko litzuzke. 76 56 66.

Klinika auxiliarrak batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. Deitu 76 64 47 telefonora.

47 urteko emakume batek astebukaera eta jaiegunetan zaharrak zaindu eta etxeko lanak egiteko litzuzke. Deitu 76 50 46 telefonora.



LAGUN ARO
ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Iraegi Aseguruak

Ramon Maria Lili 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54
ORDUTEGIA: Astelehenerdik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



Dena zure haurrarentzako


San Pedro 10 Tf. 76 10 39



ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA

76 49 00

HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51 Tf. 76 50 32

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6 Tf.: 76 13 29

Neska batek orduka lan egingo luke. Deitu 939 472584 telefonora.

Neska batek zaharrak zaindu (gauzez ere bai) eta garbiketa lanak egingo lituzke (orduka). 76 58 10 (Maria Jesus).

Tabernari lanak egingo nituzke. 76 03 31.

Eskaerak

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 76 48 76.

Errepartoa egiteko furgoneta duen mutila behar da. 76 10 71.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. 76 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen ditut. Deitu 76 03 72 telefonora (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. 76 70 40.

Fisika, informatika eta mate klaseak. 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. 76 33 26.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. 76 03 83.

Majisteritza ikasle batek LH eta DBHko klaseak ematen ditu. 76 11 81 (Ainara).

Eskaerak

Bi lagunek frantses klaseak hartuko lituzkete. 76 36 83.

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

Audi 90 kotxea salgai. 1988koa. 76 35 09.

Ford Escort kotxea salgai. ZA-F. 76 09 85.

Roller jet karabana salgai. 5 plaza. 76 44 05.

T.E.C. King karabana salgai. Lau plaza. 74 31 37.

Opel Corsa 1.200 salgai. 72.000 Km. 76 03 47 (gauzez).

Denda karro bat salgai. 76 31 57 (gauzez).

7. ANIMALIAK

Saldu/Eman

Lau txakurkume oparitzen ditut. 76 55 52.

Setter ingeles arrazako lau txakurkume salgai. Abenduaren 19an jaiotak. 76 51 38 (Joseba).

Txakurra (bi urte) oparitzen da. 939 47 25 84.

8. DENETARIK

Saldu

Bigarren eskuko telefonoa erosiko nuke. 76 09 99 (gauzez).

Gazteentzako altzariak saltzen ditut. 20.000 pezeta. 76 30 93.

Altzariak prezio onean salgai. 76 30 93.

Ziklismoko oinetakoak salgai. 76 01 31.

Belaunetarinoko katiuskak salgai. 76 53 16.

Soinua saltzen dut. Oso egoera onean. 76 56 65.

Logela klasikoa salgai. 19 10 95 (Manoli).

Talde italiar bateko txirindulari ekipoa eta Ronaldo izenarekiko futbol kamiseta saltzen ditut. 76 47 82.

Katu siamesak salgai. Hilabete t'erdia. 76 17 35.

Filateliako 0,10 cm.ko zeilua saltzen dut. 76 12 86 (M. Karmen).

Aspes hozkailua salgai. 10.000 PTA. 76 06 81.

Galdu

Diru kopuru dexentea galdu dut. 76 07 92. Saritu egingo da.

Txamarra bakeroa aurkitu dut. 76 17 84.

Betaurreko graduatu batzuk topatu ditut Simon Arrietan. Udaltzaingoan laga ditugu.

Bestelakoak

Arrasate Irratiko programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktatu nahi dugu. 79 58 40.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

MUNTATZAILEA

- Deba Behean kokatutako enpresa baterako.

Baldintzak

- Bizitokia: Deba Behean edo inguruan.
- 2. mailako ofizial lanak egitea.
- Erref. 6832/3

KALITATE-KONTROLEKO TEKNIKOA

- Deba Garaian kokatutako enpresa baterako.

Baldintzak

- Bizitokia: Deba Garaian edo inguruan.
- Ikasketak: LH 2 kalitate-kontrolako adarrean.
- Esperientzia: urtebetekoa kalitate-aseguramenterako sistematan.
- Erref. 6791/2

ALUMINIOAN LAN EGITEN DUEN AROTZA

- Deba Behean kokatutako enpresa baterako.

Baldintzak

- Bizitokia: Deba Behean edo inguruan.
- Esperientzia: urtebete ateak, leihoak e.a. egiten.
- Adina: 20 eta 40 urte artean.
- Soldadutza edo ordeko zerbitzutik libre.
- Erref. 6446/2

TEKNIKO KOMERTZIALA

- Urola kostaldean kokatutako enpresa baterako.

Baldintzak

- Bizitokia: Urola kostaldean edo inguruan.
- Ikasketak: gutxienez LH 2 edota III. mod. mekanika adarrean.
- Tailer eta mekanizazio lanen ezagutza.
- B1 gidatzeko karneta.
- Erref. 6621/3

AGOITZ Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



Matxiategi Elektragarintza C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 76 19 94

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 76 56 62

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 76 03 57

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

Udaberri-udako moda domekan Jam aretoan

Ikasbidaiera eta Reimsera joateko antolatuko Miguel Altunako ikasleek

Miguel Altuna institutuko ikasleek moda desfilea antolatuko dute domeka honetan Jam aretoan arratsaldeko 6etan. Desfilean eskolako ikasle eta irakasleek hartuko dute parte eta Bergara eta Arrasateko dendariak lagatako arropak erakutsiko dituzte.

Moda desfilearen helburu nagusiak bi dira: alde batetik, elektriko alorreko ikasleak ikasbidaiera joateko eta administratibo modulokoak Reimsera joateko sosak batzea eta, bestetik, udaberri-udako jantziak erakustea. Desfilean 32 lagunek hartuko dute parte: 26 ikasleak (13 mutil eta 13 neska) eta 6 irakasleak (Jose Mari Larrañaga zuzendaria eta Pili Arin ikasketa burua eta Mertxe, Arteaga, Urriategi, Rosana eta Eugenio irakasleak).



1996ko urrian, Jam aretoa inauguratu zenean, Bedelkarrek antolatutako moda desfileko irudi bat.

Bergara eta Arrasateko dendariak

Moda desfilean Bergara eta Arrasateko denda hauetako arropak erakutsiko dira: Bergarako Maya, Junbiju, Aisor, Janden, Bergara Piel, Cristina, Igarza eta Gantxegi eta Arrasateko Gili-Gili, Dotakon, Sirimiri eta Flash. Bestalde, Jazmin eta Amparo ileapaindegietakoei orraztu eta makilatuko dituzte modeloak. Desfilean Euskadiko Kutxak eta Zubikuak ere lagundu dute. Antolatzailak laguntza eskaini dieten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

Bi orduko saioa

Desfileak bi ordu inguru iraungo ditu eta antolatzailen asmoa da, desfileaz gain, antzerki eta musika saioak es-

kaintzea. Jam aretoan 400 lagunendako aulkiak jarriko dituzte eta domekan 500 bat lagun bertaratzeko itxaropena dute antolatzailak. Jam aretoko eskenatokia eta egun horretarako prestatutako pasarela erabiliko dituzte desfileatzeko. Aurkezle lanak Mikel Almortzak egingo ditu, koreografiaz Pili Arin arduratu da eta ikuskizunaren gidaria Rosana Gutierrezek landu du.

Sarrerak 500 pezetan jarriko dira salgai Etxagi eta Ariznoa tabernetan eta Jameko takilan.

Frantziako iparraldera

Miguel Altuna institutuak eta Liberier Reims institutuak orain dela hiru urte ekin zioten elkarrekin interkan-

bioa egiteari. Administratibo moduloko ikasleak ari diren hemengo ikasleak Parisetik 234 kilometrorra dagoen Reims hirira egun batzuetarako joan eta, hangoak, Bergarara etorri izan dira urterik 1995 urtetik hona. Hangoek gazteak praktikatzen aukera izaten dute eta hemengoek fantsesa.

Miguel Altuna institutuak bidaiari erdia ordaintzen du, baina gainontzeko ikasleek ordaindu behar izaten dute, horregatik antolatu dute moda desfilea; bestalde, aurreko elektriko modulan dabilzanek ikas bidaiera joateko sosak batzeko ere antolatuko dute desfilea.

Domekako ikuskizuna, esan bezala, arratsaldeko 6etan hasiko da eta antzerki denaldi bat izango da. B

ileapaindegia
eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 76 00 55

UDABERRI-UDA
denboraldiaren hasiera

Janden

Eta Orain
52ra arte
taila
haundiak

Gazte eta emakumeendako jantzi eta osagarriak
Irizar 1, BERGARA. Tf. 76 20 03

Bailarako Lehen Arte Topaketa

Bergara eta Arrasateko artisten 54 lan ikusgai

Astlehenean Arrasate eta Bergarako hainbat artista bildu zen Kultur Etxean Abdon Juaristi zenaren omenez Beart-ek eta Arrasate Margo Taldeak antolatutako erakusketaren inaugurazio ekitaldian. Bertan, Mertxe Lasa, Abdonen alarguna, eta hauen semeak ere izan ziren.

Eskualdeko Lehen Arte Topaketa izeneko erakusketa honetan, Arrasate eta Bergarako hainbat zeramika, eskultura eta pinturagileren lanak ikusi daitezke, 54 artistaren lanak denera. Esan daiteke ia guztiak daudela, Bergarakoak bai, behintzat. Esate baterako, Gabonetan egiten den erakusketa kolektiboan azken urteetan parte hartu ez duten Jesus Mari Lazkano eta Manu Muniategiandikoetxearen -herriko pintore ospetsuenak- lanak ere ikusi daitezke Kultur Etxeko erakusaretoan.

Gehienak pintura lanak dira, eskulturak eta zeramika lanak ere badauden arren. Margoen artean, era guztietakoak: batzuk figuratiboak -paisaiak gehienak- eta beste batzuk abstraktoak. Oleoan egindakoak dira gehienak, baina akrilikoarekin edota lumatxo eta lapitzarekin egindako lanak ere ikusi daitezke.

Afizioz lan egiten dutenak eta profesionalak, era guztietako artistak bildu ditu Abdon Juaristik, Bergaran bailara osorako arteleku baten alde eta, Simon Arrietaren garaian bezala, paisajisten eskola eta bilgune baten alde lan egin zuenak.

Eskualdeko Lehen Arte Topaketa izeneko erakusketa apirilaren 5era arte izango da ikusgai Kultur Etxean. Astebaruan, 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan goizez ere bai. Ondoren, Arrasatera eroateko asmoa daukate. B



Bergara eta Arrasateko artistak bildu ziren astlehenean Kultur Etxean.



Andolin Eguzkitza
Herioaren itzalpeetan
Eleberria

Antonio Ozkoidi politikoa nafar abertzalearen bizipen pertsonalen harrian, horrekin loturiko gertakariak aurkituko dituzue eleberri honetan. Gerraurrekoak eta gerratearen ondorengoak, herrikoak eta atzerrikoak, esperantzak eta zapuzaldiak, baina oroz lehen fedea eta amodioak ematen duten aitzina egiteko borondate makurtuezina. Andolin Eguzkitza (Santurtzi, 1953) EHUko irakaslearen hirugarren eleberria duzue hau.


- Txalaparta. 194 orr. 1.700 PTA



Gaztemaniak
Maquetas 2
Rock

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria eta Kirol Departamenduaren "Gaztemaniak" programak 4 urte bete ditu kultura, musika eta zine jarduerak bultzatzen. Azken emaitza, herrialdeko 14 talderen abesti bana jasotzen duen CDa da. Gipuzkoa osoko 50 bat talderen maketen artean aukeratutako 14 talderen abestiak jasotzen dira bertan. Era askotako soinuak entzun daitezke: psikedelia, pop, soinu elektronikoak, blues, trash...; hamar herritako 14 talde: Ill, Pano's Flat, Led, Itzain, Eraso, Exit, Foscal, Le Pendu, Zuma, Señora Queso, Sergio, Lagash, Manoukian eta C. Bandish. CDarekin batera, aldizkari bat kaleratu dute.

- Foru Aldundia. 300 PTA



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 76 10 65. Faxa: 76 11 40.

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Lotsagaldua. 2. Eraikuntza. 3. Herrenka dabilena. Bi. 4. Nork, pluralean. Irain-hitzak. 5. Nafarroako. Interjekzioa. Argona. 6. Bokala. Bokala. Jainko egiptoarra. Koordinadora Abertzale Sozialista. 7. Emakumezko zerbitzari. Ortuaren erdian. 8. Gutariko. Guztiak, denak. 9. Iparraldean, orain. Asiako estatua. 10. Bi bokal. Aran-mota.


Goitik behera

1. Lehena. 2. Egonkortasuna. Atmosferako fenomenoa. 3. Jatorri atzikia. Jaia. 4. Asiako estatua. Itsas hegazti. 5. Ahuntzaren arrak. Potasioa. 6. Edari alkoholduna. Amaren ama. 7. Neba. Bokala. Erbioa. 8. Baldintzetan. Naizen honek. Opatu. 9. Eguzkia. Zintzarri haundi. 10. Lehenengoa. Euskal eskola.

Soluzioa

Ezker eskuma
1. Herrenka dabilena. 2. Eraikuntza. 3. Herrenka dabilena. Bi. 4. Nork, pluralean. Irain-hitzak. 5. Nafarroako. Interjekzioa. Argona. 6. Bokala. Bokala. Jainko egiptoarra. Koordinadora Abertzale Sozialista. 7. Emakumezko zerbitzari. Ortuaren erdian. 8. Gutariko. Guztiak, denak. 9. Iparraldean, orain. Asiako estatua. 10. Bi bokal. Aran-mota.
Goitik behera
1. Lehena. 2. Egonkortasuna. Atmosferako fenomenoa. 3. Jatorri atzikia. Jaia. 4. Asiako estatua. Itsas hegazti. 5. Ahuntzaren arrak. Potasioa. 6. Edari alkoholduna. Amaren ama. 7. Neba. Bokala. Erbioa. 8. Baldintzetan. Naizen honek. Opatu. 9. Eguzkia. Zintzarri haundi. 10. Lehenengoa. Euskal eskola.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein jauregiren sarrerako zutabeen irakur dezakegu hitz hau? Eta zer jartzen du ondoko zutabeen?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Osintxu** asadorean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Elisa Garmendi**arentzat izan da Eguzkitza erretegiaren bi lagunendako afaria. Zorionak Elisari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Santikruz ermita** edo **Santutxua**. Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**.

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauek erantzuten dituzun!

1. Zein egunetan pasatuko da Euskadiko Itzulia Bergaratik?
A- Maiatzaren 29an
B- Maiatzaren 24an
C- Apirilaren 7an
2. Nor izendatu dute Bedelkarreko presidente berria?
A- Elsa Rodriguez
B- Tomasa Zabaleta
C- Julen Narbaiza
3. Nola deitzen da Angelo Cacciolak zuzendutako proiektua?
A- Herri bisuala
B- Herri birtuala
C- Amore di mare

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Osintxu
asadorea

Osintxu 16
Telefonoa: 76 33 08

Mila Elortza Angiozarko liburutegiko arduraduna dugu. Eskola ondoko liburutegia arratsalde izaten da zabalik. Aurretik Bergarako Udal Liburutegian ere izan zen lanean Mila. Administratibo ikasketak egin zituen eta gustora ari da liburu artean.

Mila Elortza

Zein adinetako jendea joaten da liburutegira?

Andreak eta umeak, batez ere.

Zenbat liburu irakurtzen dituzu urtean?

Puff!! Umeenak zenbatuta pilo bat.

Liburuak erosteko orduan kritikari kaso egiten diozu?

Autorea eta editoriala gehiago izaten ditut kontutan.

Irakurtzeko momenturik onena?

Gaua.

Eta etxeko zein tokitan?

Sukaldean ondoen.

Genero bat?

Historikoa.

Autore bat?

Atxaga.

Gogoan duzun liburu bat?

"El principito", "Las mil y unas noches"..., euskaratuta daude gainera.

Negar eragin dizun liburu bat?

Erromantikoren bat; "Dias de tormenta", Rosamunde Pilcherena.

Eta barre?

"Nikolas txikiren abenturak" (Gosciny).

Komikiak irakurtzen dituzu?

Asko ez.

Interneta erabiltzen duzu?

Ez.

Egunkarian irakurtzen duzun lehena?

Azken orrialdea.

Esan bai, baina oraindik egin

ez duzun gauza bat.

Ingalaterran denboraldi bat igaro.

Zer egin duzu San Joseko zubian?

Lana.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Juerga, hain denbora libre gutxi daukat...

Kirol bat?

Pilota, igual.

Pilotari bat?

Elkoro eta Titin.

Mania bat?

Ordena. Baina nahiko desordenatua naiz.

Besteengan gehien apreziatzen duzuna?

Adiskidetasuna.

Zodiakoko zein zeinutakoa zara?

Scorpius.

Horoskopoa irakurtzen duzu?

Lagunartean barre egiteko ondo dago.

Kolore bat?

Beltza.

Jantzi bat?

Praka bakeroak.

Telebista ala irratia?

Irratia. Telebista aurrean 5 minutu ere ez...

Gustoko filme bat?

Casablanca.

Udaberria gustatzen zaizu?

Udazkena nahiago.



SUBiJi

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 76 42 41

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 76 23 79

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK

MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA

IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 76 09 32

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 76 31 02



*Gozogintzan
aintzindari.*



Elixamendiko Andramari, 1970

Aste honetako argazkia 1970 urte inguruan ateratakoa da, Elixamendiko Andramari egunean, bedeinkazioa jaso ondoren, ermitaren aurrean. Guztien izenak ez baditugu ere, hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik hasita.

Goiko ilaran: Maria Luisa Garciaetxabe, Igor Ruiz de Egin, Angeles Laspiur, Igone Elortza, Klarita Laspiur eta Garbiñe Elortza.

Bigarren ilaran: Maria Luisa Zuburruti, Estibaliz Arantzabal, Teodora Aretxaga, ume ezezaguna, Petri Agirrezabal, Asier Garitano eta Pilar Alvarez.

Hirugarren ilaran: Arantza Badiola, Eusebio Ziardegi, Jazinta Larrañaga, Dorotea Zuluea, ezezaguna, Maria Elortza, Juanita Sagastizabal, Luis Lonbide, ezezaguna eta ezezaguna.

Laugarren ilaran: Arrate Elortza, Miren berdi, Aintzane Belastegi, Rita Garitano, Izakun Eguren, Amaia Elortza, Nerea Luarizari, Mila Elortza, Mertxe San Miguel, Igor Agirrezabal, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Karmen Intza, German Marzana, Ana sus Elortza, Maritere Larrañaga eta Nerea Medizabal.

Behoko ilaran: Mertxe Garai, Raul Garitano (atzean), Maria Luisa Belastegi, Mila Eguren, Miren Atxotegi, Irune Agirrezabal, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Juan Ruiz de Egin, Begoña Sanchez, Karlos Marzana, Fernando Marzana eta Begoña Aranzabal.

Argazkia: Imanol Iriagorri

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkala 35 Tf.: 76 17 27

Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria **U** Industriak
hornikuntzak **UNIFE** alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Cruz 25 ARETXABALETAN
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

Pili Manso optikak bere bezeroei

Erreforma-lanak bukatu ondoren zuen
zerbitzura gaude betiko lokalean,
Irizar 2an.

P. MANSO
Optika

Telefona: 76 27 86



LILURA
Edertze Institutua

**DEPILAZIO
PROGRESIBOA**

- Akabo ileak!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

Aste Santuan

eskaintza berezia **solariumean**

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefona: 76 31 71




Hello friends!

This is Michael Morris, an English teacher.

Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.

Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.

Connecting Basques and the world.



**Euskara-Ingelesa
Ingelesa-Euskara
Hiztegia:**

1.200 orri

**80.000 hitz
eta adiera**

**Eranskin
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak
eta bestelako
ikasmateriala**

**Inglaterra-ko
nahiz EEBB-eko
ingelesa
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. +**

Egunkari